

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EUSKARARA ITZULI DIREN ALEMANEZKO  
LITERATUR LANEN ANALISIA

Gradu Amaierako Lana

**Egilea:** Maria Arancón Andrés

**Zuzendaria:** Mikel Babiano López de Sabando

Itzulpengintza eta Interpretazioa 2019/2020

Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

## Laburpena

Gradu Amaierako Lanerako euskarara itzuli diren alemanezko literatur lanen analisia egin dugu, ikusi genuelako orain arte lan eta ikerketa gutxi burutu direla alemana-euskara hizkuntza konbinazioari dagokionez, eta interesgarria iruditu zitzaigulako arlo horretan gure ekarpena egitea, azaletik bada ere; izan ere, lanaren ezaugarriak direla eta, ezin izango dugu asko sakondu. Horretarako, alemanez sortu eta euskarara itzuli diren literatur lanen ahalik eta katalogo/corpus osatuena egin dugu, eta, jarraian, itzulitako lan horiek irizpide ezberdinen arabera sailkatu eta aztertu ditugu: garaia, literatur generoak, autoreak, itzultzaileak eta argitaletxeak. Sortu dugun katalogo hori lanaren amaieran dago atxikita (ikus I. Eranskina). Bertan, ez ditugu bildu euskarazko egunkari eta aldizkarietan argitaratutako ipuin, poema edo saiakera solteak; horiek beste baterako utziko ditugu.

Jakin badakigu datu-baseak eta katalogoak etengabe ari direla eguneratzen, eta hori da gure lanaren bitartez egin nahi izan dugun ekarpena: alemaneko lanei trataera berezia eskaintzea eta sakonago aztertzea, eta, horrekin batera, katalogoa eguneratzea.

Beraz, hau da lan honen orrietan aurkituko duguna: historian zehar euskarara itzuli diren alemanezko literatur lanen katalogoa/corpusa, eta horien azterketa. Katalogoan, 1868an lehen itzulpena argitaratu zenetik gaur egunera arte alemanetik euskarara zuzenean nahiz zeharka, hau da, zubi-hizkuntza baten bidez, itzuli diren liburuak jaso ditugu. Jatorrizko alemanezko zenbat liburu euskaratu eta argitaratu dira? Zein literatur genero islatzen dute itzulpen horiek? Nork itzuli ditu? Alemanez idatzi duten zein egile itzuli dira? Zein garaitan eta non argitaratu dira? Galdera horien erantzunak ezagutuko ditugu esku artean dugun lan honetan, eta, aldi berean, argitalpenek izandako bilakaera ikusiko dugu, azken hamarkadetako itzulpenei dagokienez, batik bat. Horretaz gain, euskal literaturaren eta itzulpengintzaren historia ere ezagutu eta aztertuko dugu. Analisi hori egiterako orduan, betiere, oso presente izango dugu atal teorikoa, baita euskararen eta alemanaren kultur testuinguruak ere; izan ere, lortutako emaitzak eta datuak interpretatzen eta ulertzen lagunduko digute.

**Hitz gakoak:** itzulpen-ikasketak, euskal literatura, alemaniar literatura, corpusa, datu-baseak.

## Aurkibidea

SARRERA.....	5
1.1. Zer dira itzulpengintza eta itzulpena?.....	6
1.2. Itzulpengintzaren hastapenak.....	7
1.3. Polisistemen Teoria.....	7
2. EUSKARAREN KULTUR TESTUINGURUA.....	8
2.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa.....	9
2.2. Euskal Literatura eta itzulpengintza.....	9
3. ALEMANAREN KULTUR TESTUINGURUA.....	12
3.1. Alemanaren egoera soziolinguistikoa.....	13
3.2. Alemanezko literatura.....	13
4. METODOLOGIA: KATALOGOA OSATZEA.....	14
5. ALEMANETIK EUSKARARA EGINDAKO ITZULPENEN ANALISIA.....	16
5.1. Garaia.....	16
5.2. Literatur generoak.....	19
5.3. Autoreak.....	21
5.4. Itzultzaileak.....	24
5.5. Argitaletxeak.....	27
6. ONDORIOAK.....	29
7. BIBLIOGRAFIA.....	33

## **Taulen aurkibidea**

1. Taula. 1976-2008 urteetan euskarara gehien itzuli diren hizkuntzak, ehunekotan (López Gaseni, 2009).....	10
2. Taula. 1976-2008 urteetan euskarara itzuli diren literatur generoak, ehunekotan (López Gaseni, 2009).....	11
3. Taula. 1976-2008 urteetan euskal itzulpenak argitaratu diren datak, ehunekoetan (López Gaseni, 2009).....	11
4. Taula: HGL-n euskarara gehien itzuli diren hizkuntzak, ehunekotan (López Gaseni, 2000).....	12

## **Irudien aurkibidea**

1. Irudia. Garai bakoitzean argitaratu den itzulpen kopurua, ehunekotan .....	17
2. Irudia. Azken 39 urteetan euskal itzulpenen argitalpenak izandako bilakaera (1980-2019).....	18
3. Irudia. Euskarara itzuli diren alemanezko lanen literatur generoak .....	20
4. Irudia. Jatorrizko lanak alemanez idatzi ondoren, euskaratutako idazleak.....	21
5. Irudia. Alemanez idatzi duten idazle euskaratuena, garaiaren arabera.....	23
6. Irudia. Alemanez idatzi duten idazleak, sexuaren arabera.....	24
7. Irudia. Alemanezko lanak euskaratu dituzten itzultzaileak .....	25
8. Irudia. Euskal itzultzaileak, sexuaren arabera .....	26
9. Irudia. Jatorrizko literatur lan alemanen euskal itzulpenak argitaratu dituzten argitaletxeak.....	27

<b>I. Eranskina: Katalogoa/Corpusa .....</b>	<b>36</b>
--	-----------

## Sarrera

Euskal Herriko Unibertsitateak 2000/2001. ikasturtean itzulpengintza gradua abian jarri zuenetik, trebakuntza jaso duten itzultzaile profesionalak ugarituz joan dira; horrek eragina izan du jardueraren ikusgarritasunean eta, gaur egun, itzulpenek zein itzultzaileek presentzia eta prestigio handiagoak dituzte, oro har, gure gizartean. Era berean, gora egin du itzulpen ikerketen inguruko proiektu eta lan kopuruak, baita euskal itzulpengintzari dagokionez ere.

Laburpenean adierazi bezala, lan honen helburua historian zehar alemanez sortu eta euskarara zuzenean nahiz zeharka itzuli diren literatur lanak jasotzea eta horien analisia egitea da; zer itzuli den, nork itzuli duen, zein garaitan eta non argitaratu den ikusiko dugu, zehatz-mehatz. Halaber, datuek euskal literatura eta itzulpengintzaren historia hobeto ezagutzen lagunduko digute.

Hasteko, azalpen teoriko batzuk emango ditugu itzulpengintzaren eta itzulpenen inguruan. Jarraian, euskararen eta alemanaren kultur testuinguruari buruzko datu batzuk aurkeztuko ditugu, eta, horrela, bi kultura horiek erkatuko ditugu, labur bada ere. Informazio hori argi dugula, jarraitu dugun metodologia azaldu eta lanaren atal praktikoari ekingo diogu: katalogoaren eta literatur itzulpenen analisia; atal honetan jarriko dugu arreta, bereziki. Amaitzeko, ondorioen berri emango dugu, eta ikerketa-ildo berriak proposatuko ditugu.

Lan honen aurrekarien bila atzera begiratzen badugu, aitzindarietako bat Naroa Zubillaga dela esan daiteke, hark alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura aztertu zuelako 2013ko doktore-tesian. Guk, gure apalean, Zubillagaren emaitzak osatu nahi izan ditugu, eta ikusiko dugu gure datu berriak bat ote datozen Zubillagaren emaitzekin. Zubillagak HGL-ko itzulpengintzari buruz esandakoak baliagarriak al dira alemanez sortu eta euskarara itzultitako literatur lan guztien errealitatea ulertzeko? Ba al da ezberdintasunik? Horretaz gain, bada beste hizkuntza batzuetatik euskaratutako lanak aztertu dituenik ere; esate baterako, Josu Zabaleta eta Manu López Gaseni.

Aurreikusten dugu itzulpen gehienak XX. eta XXI. mendean argitaratu direla, eta gehienak haur- eta gazte-literaturakoak izango direla, euskarazko itzulpengintza XX. mendean hasi zelako garrantzia hartzen, eta, oro har, gurean gehien kontsumitzen den generoa narratiba delako. Beste literatur generoei dagokionez, ez dugu uste saiakera, poesia eta antzerki asko itzuli denik; kopuru baxuak/txikiak espero ditugu, euskaraz ez

direlako beste generoak bezain ohikoak. Horren harira, sortzen zaigun galdera honakoa da: itzulpenek euskarazko produkzioaren irizpide berdinei eusten diete? Alegia, euskaraz HGL eta nobela asko kontsumitzen badugu, alemanetik HGL eta nobela asko itzuliko da?

### **1.1. Zer dira itzulpengintza eta itzulpena?**

Itzulpengintza eta itzulpena zer diren definitzeko orduan, ez dago definizio egoki eta bakar bat. Gainera, itzulpengintzak adar asko ditu, eta literatur itzulpena da horietako bat.

Autore asko dira historian zehar itzulpengintzari buruz hitz egin dutenak. Definizio aniztasun horrek unean uneko interpretazioa adierazten digu, hots, itzulpengintzaren inguruko ikerketek azken hamarkadetan aurrera egin ahala diziplinaren definizioa ere aldatuz eta osatuz joan da. Horrela, duela hamarkada batzuk alderdi linguistikoak pisu handia zuen, eta, gaur egun, kulturalak eta sozialak ere bai.

Haatik, argi utzi nahi dugu atal honen helburua ez dela itzulpengintzaren eta itzulpenaren definizio zuzen eta bakarra proposatzea, baizik eta horien inguruan autoreek esan dituztenen berri ematea eta iritzi-aniztasuna erakustea. Hona hemen autore horiek emandako definizio batzuk, itzulpengintzaren alderdi linguistikoa nahiz kulturala azpimarratzen dutenak:

«Translation is the replacement of textual material in one language (SL) by equivalent textual material in another language (TL)» (Catford, 1965).

«Translating consists in reproducing in the receptor language the closest natural equivalent of the source language message, first in terms of meaning and secondly in terms of style» (Nida eta Taber, 1974).

«Hizkuntza bateko (SH) testu bat beste hizkuntza batera (XH) idatziz aldatzearen prozesua, prozesu horretatik sortzen den emaitza edo itzulkinak baliokidetzaz eskakizun jakin batzuei erantzuten dielarik» (Mendiguren Bereziartu, 1992).

«The viability of a translation process is established by its relationship to the cultural and social conditions under which is produced and read» (Venuti, 1995).

«Translation is recognized as a cultural practice interacting with other practices in a historical continuum. The workings of translation norms, the manipulative nature of translation and the effects of translation can all be slotted into a broader sociocultural setting. The study of translation become the study of cultural history» (Hermans, 1999).

Bestalde, hiztegi orokorretan begiratzen badugu, hau da, esaterako, Harluxet hiztegi entziklopedikoan<sup>1</sup> agertzen den definizioa:

- Itzulpen: itzultzeko ekintza eta horren ondorioa. Testu bat beste hizkuntza batean emateko ekintza (prozesua); beste hizkuntza horretan eginiko testua bera (produktua).
- Itzulpengintza: itzultzailearen lanbidea edo jarduna.

Hiztegiko definizio horiek oso orokorrak dira, ez dute ñabardurarik jasotzen eta alderdi linguistikoari pisu handia ematen diote. Testuinguru horretan, ondorengo galdera hau planteatu nahi genuke: gauza bera al dira «itzultzea» eta «literatura itzultzea»? Zeintzuk dira antzekotasunak eta ezberdintasunak? Itzulpen espezialitate edo adar bakoitzak ezaugarri propioak ditu, eta zaila da guztiak termino beraren bidez adieraztea.

## **1.2. Itzulpengintzaren hastapenak**

Itzulpena elkarrekin komunikatzeko beharra bezain praktika zaharra da. Funtsezkoa da elkar ulertzeko eta, ez hori bakarrik, baita norberaren identitatea zerraditzeko eta nazio modernoek sorrera ulertzeko ere, bestearengana hurbiltzen edo harengandik bereizten gaituen neurrian (Babiano, 2019).

Itzulpenari buruzko gogoetak eta ideiak oso zaharrak dira. Baina hausnarketa horiek sistematizatu dituzten teoriak XX. mendearen erdialdean hasi ziren sortzen. Horren bi aitzindari dira ondorengo lan hauek: Itamar Even-Zoharren *Polysystems Theory* (1979) eta Gideon Touryren *In search of a theory of translation* (1980).

Ezagunenetako bat eta oihartzun handienetarikoa izan duena Polisistemen Teoria da. Horregatik, hurrengo puntuan teoria horren inguruan hitz egingo dugu, eta zertan datzan azalduko dugu labur-labur.

## **1.3. Polisistemen Teoria**

1970eko hamarkadan, Itamar Even-Zohar (Tel Aviv, 1939) izeneko itzultzaile eta hizkuntzalari israeldarrak Polisistemen Teoria garatu zuen. Even-Zoharren arabera, kultur agerraldiak sistema beregainak dira, baina ez isolatuak, eta etengabe inguruko kultur fenomenoekin elkarrengainean daude. Beraz, dinamikoak dira.

---

<sup>1</sup> <http://www1.euskadi.net/harluxet/>

Dinamismo horretan, sistema bakoitzak historian zehar posizio bat edo beste hartzen du. Hortaz, periferian zegoena erdigunera igaro daiteke, eta alderantziz (Even-Zohar, 2010).

Nola eragiten dute, ordea, itzulpenek kultura bateko literaturan? Zer pisu dute? Galdera horiek planteatu beste erremediorik ez dugu, itzulpenak beharrezkoak baitira kultura bateko literatura hobeto ulertzeko eta aztertzeko. Itzulpenek pisu handia izan dezakete sistema bat eraikitzeko; historiak erakutsi digunez, itzulpenek dinamismoa eta aldakortasuna eragiten dituzte literatur sisteman, batetik besterako transferentzien bidez sistemetako errepertorioa osatzen laguntzen dutelako (Even-Zohar, 2010). Hala ere, itzulpenak pisu handiagoa edo txikiagoa izan dezake literatur sistemaren arabera.

Even-Zoharrek dio kultura batean barne-produkzioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta periferikoagoa izango dela literatura itzuliak hartzen duen posizioa. Eta alderantziz, barne-produkzioa zenbat eta txikiagoa, orduan eta posizio zentralagoa hartuko du literatura itzuliak.

Beraz, euskal literaturari dagokionez, esan daiteke, Even-Zoharren arabera, itzulpenak posizio zentrala duela; izan ere, euskal literatura gaztea, ahula (beste hizkuntza handiagoen mende dago) da, eta hein handi batean, itzulpenei esker zabaldu/garatu da.

Hala ere, denborak aurrera egin ahala itzulpengintzaren inguruko teorizazioak geroz eta pisu handiagoa irabazi du, eta beste mugimendu eta eskola berriak agertu dira, bereziki 1990eko hamarkadatik aurrera: Kanadan sortu diren itzulpen-teoria postkolonialak, feminismoarekin lotutako korrante berriak, soziologia, filosofia eta beste disziplina batzuk... Horiek guztiek Even-Zoharren teoria aberastu dute, eta gaur egungo itzulpengintza ulertzen eta aztertzen laguntzen digute, ezin baitugu gaur egungo itzulpengintza aztertu kultura bezalako beste irizpide batzuei erreparatu gabe.

## **2. Euskararen kultur testuingurua**

Lanaren azterketari ekin baino lehen, beharrezkoa iruditzen zaigu euskararen kultur testuingurua zein den azaltzea, horrek eragina izango baitu itzulpenen azterketan.



## 2.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa

Euskara, guztiok dakigun bezala, Euskal Herriko hizkuntza da. Hizkuntza isolatua da; ez da hizkuntza indoeuroparra, eta oraindik ezin izan da munduko beste hizkuntza familiekin erlazionatu, ez zaio ahaidetasunik aurkitu. Euskararen jatorriari buruzko teoria asko daude; horien artean, ezagunenetako bat eusko-iberismoarekin lotutakoa da. Horrek euskararen eta iberieraren arteko ahaidetasuna aldarrikatzen du. Teoria horren aldekoak izan ziren, adibidez, Wilhelm von Humboldt (1767-1835) eta Manuel Larramendi (1690-1766). Hala ere, egungo euskalari gehienek baztertu egiten dute.

Euskarak kaukasiar hizkuntzekin ahaidetasuna izan lezakeela esaten duen teoria bat ere badago, beste askoren artean. Egun onartuen dagoen hipotesia da euskara milaka urtez hitz egin dela Pirinioen inguruan. Hipotesiak gorabehera, bere jatorria ez dago argi.

Joseba Lakarraren (2009) ustez, datak erlatiboak dira, eta aitzineuskararen fasea erromatarrekin kontaktuan sartu aurretiko garaian kokatu daiteke, Kristo aurreko II. mendera bitartean.

Gaur egun, euskara hizkuntza gutxitua da eta, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako zenbait lekutan koofiziala izan arren, egoera diglosikoa bizi du, Euskal Herrian gaztelania eta frantsesa nagusitu direlako. «Diglosia gizarte batean bi hizkuntza direnean eta bata bestea baino indartsuagoa denean gertatzen da» (Kortazar, 2002). Beraz, egoera horrek ere eragina izango du, ziur asko, literaturan eta itzulpengintzaren esparruan.

## 2.2. Euskal Literatura eta itzulpengintza

Euskal literaturaren historia laburrean<sup>2</sup> azpimarragarria da itzulpenen nagusitasuna. Lehen euskal itzulpen ezaguna, Joanes Leizarragaren Testamentu Berria, 1571koa dugu. Orduz geroztik, ohiko jarduera izan da itzulpengintza (Jaka, 2005). Ingelesa, frantsesa, alemana edo antzeko hizkuntza handi/nagusietan gertatzen ez den bezala, non itzulpenen portzentajea oso txikia den sorkuntza-lanen ehunekoarekin alderatuta, euskararen literatur sistema itzulpenei esker garatu eta zabaldu da, neurri handi batean.

Euskal literaturako itzulpenen kasuan, zubi-hizkuntzaren interferentzia ere hartu behar dugu kontuan, oso ohikoa baita euskaratik beste hizkuntza batera zein beste

---

<sup>2</sup> Euskarazko lehen liburua 1545ekoa da: *Linguae Vasconum Primitiae*. Idazlea Bernart Etxepare (1480 inguru-1560 inguru) izan zen. Latinezko izenburu horrek «euskararen hastapenak» esan nahi du.

hizkuntza batetik euskarara itzultzeko unean (Zubillaga, 2013). Euskararen kasuan, gaztelaniaren interferentzia azpimarratu behar genuke, batik bat.

Joan Mari Torrealdaireren *30 urte liburugintzan* (2007) laneko datuei erreparatzen badiegu, 1976-2005. urteen artean 31.524 liburu argitaratu ziren euskaraz, historia osoan argitaratu diren liburu guztien hiru laurden. 31.524 liburu horietatik, 5.065 literatur lanak dira (produkzio guztiaren % 16). 5.065 literatur lan horietatik 1.013 itzulpenak dira (literatur lan guztien % 20).

José Manuel López Gaseniren *Euskal itzulpenen inbentario eta azterketa* (2009) laneko datuen arabera, berriz, 1976-2008 urteen artean 800 itzulpen inguru argitaratu ziren euskaraz.

López Gasenik 800 itzulpen horiek aztertu eta ondorengo tauletan bildu ditugun ondorio hauek atera zituen. 2009koak izanagatik, oso kontuan hartzekoak direla uste dugu:

<b>Jatorrizko hizkuntzak:</b>	
Ingelesa	% 32
Frantsesa	% 18
Gaztelania	% 16,7
Alemana	% 8,4
Italiera	% 5,3
Latina	% 3
Errusiera	% 2,9
Besteak	% 13,7

1. Taula. 1976-2008 urteetan euskarara gehien itzuli diren hizkuntzak, ehunekotan (López Gaseni, 2009)

Ikus dezakegun bezala, euskarara gehien itzuli den hizkuntza ingelesa da (itzulpen guztien herena, gutxi gorabehera). Ezaguna da ingelesezko literatur sistema dela mundu osora lan gehien esportatzen dituen, eta aldi berean, itzulpen gutxien onartzen dituen. Frantsesak, gaztelaniak eta, oso atzetik, alemanak jarraitzen diote.

Bestetik, beheko taulak erakusten digu euskarara gehien itzuli den literatur generoa narratiba dela. Pentsamenduaren Klasikoak bildumari esker, saiakeren ehunekoa igo egin da; hala ere, oso poesia eta antzerki gutxi itzuli da.

<b>Literatur generoak:</b>	
Narratiba	% 68
Saiakera	% 17
Poesia	% 8
Antzerkia	% 7

2. Taula. 1976-2008 urteetan euskarara itzuli diren literatur generoak, ehunekotan (López Gaseni, 2009)

Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, itzulpen gehienak 1990eko hamarkadakoak dira. Urte horietan sortu ziren itzulpen-ikasketak, EIZIE (1987), Literatura Unibertsala (1990) eta Pentsamenduen Klasikoak bilduma (1992), beste hainbat ekimenen artean. Analisiaren atalean ikusiko dugu ea datu horiek bat datozen alemanetik euskaratutako datuekin, antzekotasunak eta ezberdintasunak identifikatzeko.

<b>Itzulpenak argitaratu diren datak:</b>	
1976-1980	% 2,6
1981-1990	% 22,3
1991-2000	% 42,1
2000-2008	% 33

3. Taula. 1976-2008 urteetan euskal itzulpenak argitaratu diren datak, ehunekoetan (López Gaseni, 2009)

Haur- eta gazte-literaturari dagokionez, López Gasenik 2000ko doktore-tesian ikertu zuen genero hori, eta hauek dira, haren arabera, euskal HGL-n eragin handiena izan duten hizkuntzak eta portzentajeak:

<b>Jatorrizko hizkuntzak HGL-n:</b>	
Ingelesa	% 28,5

Katalana	% 17,3
Frantsesa	% 14,4
Alemana	% 9
Italiera	% 3,6
Galiziera	% 3

4. Taula: HGL-n euskarara gehien itzuli diren hizkuntzak, ehunekotan (López Gaseni, 2000)

HGL-n ere euskarara gehien itzuli den hizkuntza ingelesa da. Katalanak, frantsesak, eta alemanak jarraitzen diote. Beharrezkoa izango litzateke datuok ere eguneratzea, baina, momentuz, kontuan hartu beharrekoak direla iruditzen zaigu.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako liburuen ehunkoa, aldiz, oso txikia da, eta 1990eko hamarkadara arte ez da hasi euskal literatura bere mugetatik kanpo itzulpenen bidez zabaltzen (Jaka, 2005). Hedapen horren arrazoietakoa bat Eusko Jaurlaritzak eta, bereziki, Etxepare Euskal Institutuak itzulpen horiek gaur egun sustatzeko egin eta egiten duten lana da.

Etxepare Euskal Institutua 2010ean Eusko Jaurlaritzak sortutako erakundea da. Haren helburua nazioartean euskara eta euskal kultura sustatu eta ezagutaraztea da. Horretarako, nazioartean ezagutza eta ikerketara bideratutako programak ditu martxan, eta lehen mailako hizkuntza azoketan parte hartu eta hartzen du.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako literatur lanei dagokienez, ezin aipatu gabe utzi Elizabete Manterolaren 2011ko tesia, bai eta hortik abiatuta sortu zuen literatur itzulpenen katalogoa ere<sup>3</sup>.

### 3. Alemanaren kultur testuingurua

Euskara bezalako hizkuntza gutxituaren eta hizkuntza handi/hegemoniko baten artean dauden desberdintasunak argiago ikustearren, alemanaren egoera zein den azalduko dugu labur-labur.

<sup>3</sup> ELI katalogoa: <http://ehu.eus/ehg/eli/>

### 3.1. Alemanaren egoera soziolinguistikoa

Alemana mendebaldeko hizkuntza germaniarra da, eta, aldi berean, hizkuntza indoeuoparren familiakoa da. Europa erdialdean hitz egiten da, batez ere, eta 100 milioi hiztun inguru ditu. Gehien hitz egiten den hizkuntza germaniarra da, ingelesaren ondoren, eta munduko hizkuntza garrantzitsuenetako bat da (Weber, 1997).

Alemana Alemanian (biztanleriaren % 95 baino gehiagoren ama hizkuntza da), Austrian (% 89) eta Suitzan (% 65) hitz egiten da, batik bat, baina Luxenburgoko eta Lichtensteineko hizkuntza ofiziala ere bada.

### 3.2. Alemanezko literatura

Alemanezko literatura hizkuntza hori erabiltzen duten idazleek osatzen dute. Idatzizko literaturari dagokionez, 750. urte inguruan agertu zen, nahiz eta 1500. urtera arte antzinako alemaniar hizkuntza erabili. Erdi Aroko interes handieneko garaia 1170 eta 1230 urteen artekoa da, non *Minnesang*, maitasun kantu adeitsuak eta olerki epikoak loratu ziren; horien ordezkariarik garrantzitsuenena da Walther von der Vogelweide<sup>4</sup>. Era berean, Erdi Aroko testu garrantzitsuenetariko bat *Nibelungenlied* (Nibelungoen kanta) delakoa da; XIII. mende inguruan idatzitako olerki luzea dugu, eta ez dakigu nor sortu zuen.

Alemanez idatzitako gainerako literaturan unean uneko ohiko mugimenduak (Ilustrazioa, Erromantizismoa, Errealismoa...) topa ditzakegu, Europan garaiaren arabera modan zeuden elkarreragin, estilo eta gaien erakusgarri. Idazle ezagunenetakoak dira, esate baterako, Johann Wolfgang von Goethe (1749-1832) (guztietan kanonikoena dena), Grimm anaiak: Jacob Grimm (1785-1863) eta Wilhelm Grimm (1786-1859), Bertolt Brecht (1898-1956), Günter Grass (1927-2015), Heinrich Böll (1917-1985), Franz Kafka (1883-1924), Friedrich Dürrenmatt (1921-1990), eta abar. Saiakera filosofikoak kontuan hartzen baditugu, berriz, Immanuel Kant (1724-1804), Georg Hegel (1770-1831), Karl Marx (1818-1883) eta Ludwig Wittgenstein (1889-1951) aurkituko ditugu, beste askoren artean.

---

<sup>4</sup> Walther von der Vogelweide (1170 inguru-1228 inguru) Erdi Aroko poeta aleman ospetsuenetakoa da.

#### 4. Metodologia: katalogoa osatzea

Gure analisia egin ahal izateko lehen urratsa katalogo/corpus bat eratzea izan da. Corpus hori sortzeko Espainiako Gobernuako Kultura eta Kirol Ministerioko ISBN katalogoa<sup>5</sup>, EIZIERen (Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea) NorDaNor datu-basea<sup>6</sup> eta Unescoren Index Translationum datu-basea<sup>7</sup> erabili ditugu, batez ere.

ISBN datu-basean ministerioak 1972tik gaur arte Espainian argitaratutako eta ISBNa daramaten argitalpen monografikoen erreferentzia bibliografikoak biltzen dira, bai eskuragarri daudenenak, bai agortuta daudenenak ere. Haren webgunean bilaketa egiteko, bilaketa aurreratuko argitalpen-hizkuntza gelaxkan *euskara* idatzi dugu, eta itzulpen-hizkuntza gelaxkan, berriz, *alemana*. Horrela, azken kontsulta 2020ko apirilaren 15ean egin genuenean, 453 emaitza aurkitu genituen.

EIZIERen NorDaNor datu-basea euskal itzulpengintzari buruzko informazioa bildu eta zabaltzeko asmoz sortu zen, 2014an. Datu-base horretan bilaketa egiteko, itzulpenak ataleko jatorrizko hizkuntza gelaxkan *alemana* hautatu dugu, eta xede-hizkuntza gelaxkan *euskara*. Azken kontsulta 2020ko apirilaren 15ean egin genuenean, 385 emaitza izan genituen. Datuek, berez, ministerioko datuekin bat egin behar lukete, baina ez da hala gertatzen. Arrazoietakoa da izan daiteke NorDaNor poliki-poliki eguneratzen ari direla, eta datu dezente txertatzeke daudela oraindik. Oso saiakera gutxi daude jasota, adibidez; gainera, saiakeren eta fikzioaren arteko muga nahiko anbigua da batzuetan.

Esan bezala, Unescoren Index Translationum datu-basea ere kontsultatu dugu. Datu-base honetan munduko estatu eta hizkuntza konbinazio guztietako itzulpenak jasotzen dira, 1979tik 2019ra bitartean. Azken kontsulta 2020ko apirilaren 15ean egin genuenean, 321 emaitza aurkitu genituen (berrargitalpenak ere kontuan hartzen dira), baina alemanetik euskaratutako azken lanak 2008koak dira, eta, beraz, informazioa ez dago eguneratuta.

---

<sup>5</sup>[http://www.mcu.es/webISBN/tituloSimpleFilter.do?cache=init&prev\\_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es](http://www.mcu.es/webISBN/tituloSimpleFilter.do?cache=init&prev_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es)

<sup>6</sup>[http://nordanor.eus/bilatu?n=1&e\\_or=&e\\_xt=&e\\_st=&e\\_eg=&e\\_it=&e\\_ar=&e\\_ge=&e\\_sh=33&e\\_xh=42&e\\_sd1=&e\\_sd2=&e\\_xd1=&e\\_xd2=](http://nordanor.eus/bilatu?n=1&e_or=&e_xt=&e_st=&e_eg=&e_it=&e_ar=&e_ge=&e_sh=33&e_xh=42&e_sd1=&e_sd2=&e_xd1=&e_xd2=)

<sup>7</sup><http://www.unesco.org/xtrans/bsresult.aspx?a=&stxt=&sl=deu&l=eus&c=&pla=&pub=&tr=&e=&udc=&d=&from=&to=&tie=a>

Bestetik, Armiarmako Euskarari Ekarrak datu-basea ere erabili dugu, honezkero genituen lanak egiaztatzeko eta katalogoan falta zitzaizkigunak osatzeko. Horrela, lortutako emaitza guztiak taula batean bildu ditugu, horien analisiari ekin ahal izateko.

Katalogoa sortzean, ondorengo datu hauetan jarri dugu arreta, euskal literatura eta itzulpengintzaren historia gertuagotik ezagutzeko:

- Jatorrizko testuaren izenburua (zein obra aleman itzuli diren ikusteko).
- Jatorrizko testuaren argitalpen urtea (jatorrizkoa argitaratu zenetik, itzulpena zenbat urte geroago argitaratu den ikusteko).
- Jatorrizko testuaren egilea (zein autore aleman itzuli diren ikusteko).
- Euskarazko itzulpenaren izenburua (obra alemanaren izenburua nola itzuli den ikusteko).
- Itzultzailearen izena (egile alemanen lanak nork itzuli dituen ikusteko).
- Argitaletxea (euskal itzulpenak zein argitaletzek argitaratu dituzten ikusteko).
- Itzulpenaren argitalpen urtea (jatorrizkoa argitaratu zenetik, itzulpena zenbat urte geroago argitaratu den ikusteko).
- Literatur generoa (zein literatur genero itzuli diren jakiteko).

Esan gabe doa katalogoek abantaila ugari eskaintzen dituztela, oso bisualak direlako eta uneoro behar dugun informazioa azkar eta erraz topatzen laguntzen digutelako. Corpus honek ez du, ordea, euskarazko egunkari eta aldizkarietan argitaratutako ipuin, poema edo saiakera solterik biltzen. Jon Mirandek 1954an *Euzko Gogoan* argitaratu zuen *Legearen aurrean* (Kafkaren *Vor dem Gesetz* ipuinaren itzulpena) izan liteke horren adibide. Liburu jakin baten egokitzapenak ere ez ditugu kontuan hartu. Aurrerago ikertu beharrekoak izango dira, beraz, horiek guztiak.

Corpusa eratu ostean, zerrendan jasotako itzulpenak aztertu ditugu; horretarako, irizpide hauei erreparatu diegu: garaia, literatur generoa, autorea, itzultzailea eta argitaletxea. Horrela, historian zehar alemanetik euskarara zer liburu/noiz itzuli den eta nork/non itzuli duen ikasi dugu.

Esan beharra dago beste irizpide batzuk ere badaudela, hala nola, testuak zuzenean edo zeharka itzuli diren, diru-laguntzarik jaso duten, argitaletxeek itzultzailearen ikusgarritasuna bermatzen duten... Gainera, kontuan hartzekoak izan litezke testuen analisia, paratestuen konparazioa eta beste iker-ildo batzuk, baina horiek guztiak analisitik kanpo utzi ditugu, espazio faltagatik.

## 5. Alemanetik euskarara egindako itzulpenen analisia

Gorago adierazi dugun bezala, López Gaseniren datuen arabera, 1976-2008 urte bitartean euskarara itzuli diren alemanezko lanen ehunekoa % 8,4 da. Lehen postuan ingelesa dago, % 32arekin; horren atzetik daude frantsesa eta gaztelania, % 18arekin eta % 16,4arekin, hurrenez hurren. Nahiz eta aipatutako hiru hizkuntzek itzulpenen bi heren inguru hartu, ikusi daiteke alemanak ere nahiko pisu handia izan duela euskarara egin diren itzulpenetan; izan ere, egia da azken datuak 2008koak direla, baina, horien arabera, laugarren postuan legoke alemana (gehien itzuli diren bost hizkuntzen artean), euskaratutako lan kopuruari dagokionez.


Alemanetik euskarara itzuli diren literatur lanen analisia egiteko sortu dugun katalogoan (ikus I. Eranskina) guztira 491 sarrera ditugu, berrargitalpenak kontuan hartu gabe. Hala ere, aintzat hartu dira itzultzaile desberdinek obra beraren inguruan egindako itzulpen/edizio ezberdinak. Hori ohikoa da klasikotzat ditugun lanen kasuan; gure corpusean horren adibide da, esaterako, Michael Ende-ren *Momo* 3 aldiz itzuli izana (1988an Agustin Otxoak euskaratu zuen, 1998an Ainhoa Basterretxeak, eta 2019an Mikel Babianok) eta Friedrich von Schiller-en *Wilhelm Tell*; hori ere 3 aldiz euskaratu da (1934an Iñaki Goenagak itzuli zuen, 1976an Hiazinto Fernandorenak, eta 1984an Iñaki Zubeldiak).

Katalogoan liburu formatuan (horrek interneteko ebookak kanpoan uzten ditu) argitaratu diren literatur lan guztiak txertatu ditugu, eta itzulpen horiek zeharkakoak, hau da, zubi-hizkuntza baten bidez eginikoak, nahiz zuzenekoak dira; ez dugu, momentuz, bereizketarik egin. Lehen sarrera 1868koa da, eta, azkena, 2019koa.

### 5.1. Garaia

Atal honetan garai bakoitzean zer itzuli den azalduko dugu; argigarria izango delakoan, ondorengo grafikoa prestatu dugu:





1. Irudia. Garai bakoitzean argitaratu den itzulpen kopurua, ehunekotan

Grafikoan irudikatu dugun bezala, literatur itzulpenen % 0,2 soilik da XIX. mendekoa; izan ere, itzulpen bakar bat argitaratu zen mende horretan, 1860ko hamarkadan. Zehatzagoak izateko, Gregorio Arruek<sup>8</sup> *Santa Jenobebaren Bizitza* euskaratu zuen 1868an, Cristoph von Schmid apaiz alemanak idatzitako *Genoveva* testutik abiatuta.

Arrueren jatorrizko itzulpenak beste edizio bat izan zuen 1885ean<sup>9</sup>, eta hori 1960an Kuliska Sortan<sup>10</sup> berrargitaratu zen. 1929an, Juan Cruz de Zapiain bertsolariak eta Manuel Lekuonak itzultitako eta bertso bidez emandako egokitzapen bat ere argitaratu zen. 1987an, Erein argitaletxeak Arrueren itzulpena berrargitaratu zuen, Klasikoak bilduman. Lino Akesolok honakoa esan zuen von Schmid nahiz Arrueri buruz, liburu horretarako idatzi zuen hitzurrean: «ez da Schmid kanonigoaren liburuen artean euskerara itzuli izan dan bakarra. Badu beste bat Gabriel Manterola Zeanuriko semeak


<sup>8</sup> Gregorio Arrue Rezola (1811-1890) euskal idazle eta itzultzaile trebe eta oparoa izan zen. Egin zituen itzulpen guztien artean, *Santa Jenobebaren Bizitza* dugu ezagunena. *Santa Jenobebaren Bizitza* garai hartako best-sellerra izan zen; Brabanteko Jenobebaren historia kontatzen du, eta kutsu erromantiko eta erlijiosoa du.

<sup>9</sup> Gregorio Arrueren 1885eko itzulpena hemen: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/ArrueGGenobeba001.htm>

<sup>10</sup> Kuliska Sorta 1952an Zarautzen abiatutako liburu bilduma da, Francisco Unzurrunzaga Itzaropena argitaletxeko jabearen ahaleginari esker.

euskeraratuta, umeentzako ipuiezko liburu txiki bat ere. Eta Gregorio Arruek bi eskualdi eman zizkion Brabanteko Jenobebarenari».

Itzulpen gehienak XX. eta XXI. mendekoak dira, guztien % 40,9 eta % 58,52, hurrenez hurren. XX. mendean, alemanetik euskaratutako 215 lan argitaratu ziren, eta, XXI. mendean, 275. Argitalpen kopurua XX. mende amaieratik aurrera hasi zen handitzen, 1980. urtetik aurrera, hain zuzen ere. Urte horretan, 2 itzulpen argitaratu ziren; 1981an, 3; 1982an, 11; harrezkero, urtero argitaratu da alemanetik euskarara egindako itzulpenen bat, grafiko honetan ikusi daitekeen moduan:



2. Irudia. Azken 39 urteetan euskal itzulpenen argitalpenak izandako bilakaera (1980-2019)

Grafikoan gorabehera asko igartzen dira, baina gorakadak beherakadak baino esanguratsuagoak direla uste dugu. Gorakada nabarmenena 1989tik 1990era bitartean gertatu zen; izan ere, 1989an 5 lan argitaratu ziren, eta 1990ean, 19 (14 lan gehiago). Alderdi kuantitatiboari erreparatzen badiogu, liburu gehien argitara eman diren urteak 2010 eta 2012 dira. 2010. urtean, alemanetik euskaratutako 27 liburu argitaratu ziren, eta 2012. urtean, berriz, 26 lan.

Bestalde, oso deigarria da 2012tik 2013ra gertatu zen beherakada handia. Baliteke joera hori krisiaren murrizketen edo erabaki politikoren baten ondorio izatea, baina ezin izan dugu horretarako arrazoi garbirik aurkitu.

Argitalpen guztien % 95 baino gehiago azken 39 urteetan argitaratu dira, eta, batez beste, urtero 12,7 liburu argitaratu dira.

Kontuan hartu behar dugu 1936-1939 urte bitartean Espainian Gerra Zibila izan zela, eta, haren ostean, Francoren diktadura ezarri zela. Beraz, itzulpen gehienak azken 39 urteetan argitaratu izanaren arrazoietakoa bat Frankismoaren amaiera izan daiteke. Diktadura 1975ean amaitu zen, Franco hiltzeaz batera. Ordura arte, debekatuta egon zen euskara erabiltzea, hamarkadaz hamarkada gorabehera handiak izan arren. Horrek eragina izan zuen liburugintzan, eta baita itzulpengintzan ere.

Hala ere, bada salbuespenen bat edo beste: 1952an, Plazido Muxikak<sup>11</sup> itzulpen bat egin zuen, Jon Svenssonek idatzitako *Nonni und Manni: zwei isländische Knaben* liburuarena, zehatzak izateko (hau da euskarazko izenburua: *Noni eta Mani. Islandiar mutiko biren gertaldiak*). Egile berak beste liburu bat kaleratu zuen 1969an, Gero argialetxean: *Mendiko argia*, Franz Weiserren *Das Licht der Berge* liburuaren itzulpena.


Bestalde, 1980ko hamarkadaren hasieran abiatutako loraldiaren beste arrazoietakoa bat garai hartan euskara eta euskal kultura sustatzeko sortu zen mugimendua da; besteak beste, ikastolak sortu ziren, euskal literatur aldizkari ugari, eta, oro har, euskaraz zentsurarik gabe argitaratu zezaketen argialetxeak (Hordago, Elkar eta Erein, esaterako). Horiek hertsiki lotuta daude, jakina, administrazioaren babesarekin, lege berriekin eta euskararen ofizialtasunarekin.

## **5.2. Literatur generoak**

Atal honetan zein literatur genero itzuli diren aztertuko dugu, eta ondorengo grafikoak informazioa hobeto ulertzen lagunduko digu:

---

<sup>11</sup> Plazido Muxika (1906-1982) *Diccionario castellano-vasco* hiztegia egiteagatik da, batez ere, ezaguna, baina baita beste lan askorengatik ere.



3. Irudia. Euskarara itzuli diren alemanezko lanen literatur generoak

Dudarik gabe, alemanetik euskarara gehien itzuli den literatur generoa haur- eta gazte-literatura (HGL) da; argitalpen guztien % 70,06. Genero horren atzetik daude eleberria eta saiakera, % 11,81arekin eta % 11arekin, hurrenez hurren.

Itzulitako poesia, antzerkia eta eskuliburuaren portzentajeak askoz baxuagoak dira, gorago aipatu ditugun generoen ehunekoekin alderatzen baditugu. Poesiari dagokion portzentajea % 2,04 da; antzerkiarena % 1,43; eta eskuliburuena % 1,22. Amaitzeko, sailkapenean “beste batzuk” taldea dugu (% 2,44); multzo horretan jolas liburuak, komikiak, erreferentzia-materialak, CD-liburuak eta erakusketa katalogoak daude, baina, kopuruak oso baxuak direnez, batu egin ditugu.


Datu horiek bat datoz, hein handi batean, lanaren hasieran aurkeztutako López Gaseniren datu orokorrekin, non literatur genero nagusia narratiba den. Gogoan izan behar dugu 12 urte igaro direla, baina esanguratsua da emaitza berria. Merkatuak pisu handia du erabaki horretan; eskariaren arabera aukeratzen da zer itzuli eta zer ez, eta, gaur egun, gehien kontsumitzen den generoa narratiba da. Esan dezakegu genero kanonikoa dela, baina, denboraren poderioz, hori aldatu egin daiteke, ez baita irizpide finkoa.

Haur- eta gazte-literaturari dagokionez, López Gasenik, 2000ko doktore-tesian, euskarara itzulitako haur- eta gazte-literatura aztertu zuen. Haren hitzetan: «HGL-ren barruan, itzulpengintzak erabateko garrantzia dauka, euskal HGL-ren % 72,1 itzulia da. Europako batez bestekoaren gainetik dago portzentaje hori» (López Gaseni, 2000: 89). Hogei urte geroago, joera (alemana-euskara konbinazioari dagokionez, bederen) oso antzekoa dela ikus dezakegula.

Hala ere, esan beharra dago literatur generoen sailkapena egiterakoan mugak ez daudela erabat zehaztuak, kasu batzuetan oso lausoak direlako. Hori gertatzen da, adibidez, Schillerren *Wilhelm Tell* liburuari dagokionez: jatorrizkoa antzerki obra bat da (horregatik, antzerkiaren barruan sailkatu dugu guk, oro har), baina haur eta gazteentzako euskarazko egokitzapenak ezagutu ditu, oso ohikoak baitira horiek klasikoen kasuan. Batzuetan, itzulpenen helburua egokitzapena sortzea da. Beraz, HGL-tzat ere hartu genezake, jatorrizkoari edo itzulpenari kasu egiten diogun.

### 5.3. Autoreak

Atal honetan alemanez idatzi duten idazleengan jarriko dugu arreta. Zein autore itzuli diren argiago ikusteko, hurrengo grafikoa sortu dugu. Egile asko dira, eta ez dira denak agertzen, soilik esanguratsuenak/itzulienak:



4. Irudia. Jatorrizko lanak alemanez idatzi ondoren, euskaratutako idazleak

Guztira, jatorrizko lanak alemanez idatzi zituzten 199 idazle itzuli dira.

Gehien itzuli den egilea Knister da, Ludger Jochmann<sup>12</sup> (1952); izan ere, 41 lan itzuli zaizkio. Ondoren, Jacob eta Wilhelm Grimm ditugu, 16 lanekin. Jarraian, Christine Nöstlinger dugu, 13 lanekin. Laugarren eta bosgarren postuan Sabine Lohf eta Mira Lobe daude; bakoitzari 10 lan itzuli zaizkie.

Knister egile alemaniar ezagunenetako bat da, batez ere *Hexe Lilli/Kika Supersorginaren* liburu bilduma idazteagatik. Bilduma horretako lehen liburua (*Hexe Lilli*

<sup>12</sup> Knister Ludger Jochmann idazlearen ezizena da.

*stellt die Schule auf den Kopf*) 1994an argitaratu zuten alemanez eta, geroztik, haren lanak hizkuntza askotara itzuli dira.

Grimm anaiak, Jacob Grimm (1785-1863) eta Wilhelm Grimm (1786-1859), XIX. mendeko alemaniar idazle klasikoak dira. Liburuak biek batera idazten eta argitaratzen zituzten (ahozko literaturan oinarrituta, neurri handi batean). Bi anaia horien literatur lanak ere hizkuntza askotara itzuli dira, obra batzuk behin baino gehiagotan. Haien ipuinek egokitzapen ugari dute.

Christine Nöstlinger (1936-2018) idazle austriar ezagunenetako bat da. Lehen liburua 1970ean argitaratu zuen (*Die feuerrote Friederike*), eta, geroztik, beste asko idatzi zituen. 2018an hil zen, minbiziak jota.

Mira Lobe (1913-1995) ere idazle austriarra da. 1950eko hamarkadan hasi zen idazten, eta 100 liburu baino gehiago idatzi zituen. Haren lanak ere hizkuntza askotara itzuli dira.

Sabine Lohf, berriz, ilustratzailea da; corpusean jaso ditugun lanak haurrentzako eskulan-liburuak dira. Beraz, pentsatzekoa da irudi asko eta testu gutxi izango dutela. Dena den, esan beharra dago HGL-n irudiek pisu handia dutela, batzuetan testuek baino garrantzi handiagoa izateraino.

Aipatutako idazle horiek guztiek haur- eta gazte-literatura idatzi/idazten dute; ez da harritzekoa gehien itzuli diren idazleak HGL-koak izatea, lehen ikusi dugun bezala, gehien euskaratu den literatur generoa HGL baita. Beraz, datuek bat egiten dute. Halaber, 2013an, Zubillagak *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura* doktore-tesia egin zuenean, euskarara gehien itzuli diren egile alemanak aztertu zituen. Zazpi urte geroago, HGL-ko egile aleman itzulienek berdina izaten jarraitzen dute.

HGL-ko idazleak ez diren artean, gehien itzuli diren egile alemanak Immanuel Kant eta Franz Kafka dira; 6na lan itzuli zaizkie. Lehenengoak saiakerak idatzi zituen, eta bigarrenak, berriz, fikzioa (eleberria eta ipuinak nabarmenduko ditugu), batik bat.


Immanuel Kant (1724-1804) Ilustrazioaren eta filosofia unibertsalaren azken aldiko Europa modernoko filosofo nabarmenetakoa da. Haren pentsamoldea *Kritik der reinen Vernunft* obran (1781) dago jasota, non giza ezagutzaren oinarriak aztertu zituen eta epistemologia indibiduala sortu zuen.

Franz Kafka (1883-1924) alemanez idatzi zuen idazle bohemiarra izan zen. Bere lanak eragin handia izan zuen literatura unibertsalean (Miralles, 2000). Elementu errealistak fantasiakoekin lotzen aitzindarietako bat izan zen, eta gai nagusitzat ditu gatazka paternofilialak, antsietatea, existentzialismoa, basakeria fisiko eta psikologikoa, errua, absurduaren filosofia, burokrazia eta eraldaketa espiritualak (Bloom, 1994). Ipuin eta eleberriez gain, ezagunak dira haren egunerokoak eta gutunak ere bai.

Bestalde, gainerako idazle gehienei lan bakar bat edo bi besterik ez zaizkie itzuli; Zubillagak ere adierazi zuen hori bere doktore-tesian, eta gu bat gatoz berarekin.

Orain, autore bakoitza dagokion garaian kokatuko dugu, ohiko joera zein den ezagutzeko; horretarako, egile alemanak hiru taldetan sailkatuko ditugu: klasikoak, klasiko bihurtzeko bidean daudenak eta garaikideak, Zubillagaren (2013) sailkapenari jarraiki; hark, aldi berean, HGL eta alemanaren bilakaera aztertzen dituen liburu bat hartu zuen oinarritzat: Reiner Wild-en 2008ko *Geschichte der deutschen Kinder- und Jugendliteratur*.

Sailkapen horren emaitza ondorengo grafikoan ikusi dezakegu:



5. Irudia. Alemanez idatzi duten idazle euskaratuenak, garaiazen arabera

Gehien itzuli diren idazleak garaikideak dira (% 50,26), % 27,18 klasiko bihurtzeko bidean dauden egileak dira, eta, bukatzeko, % 22,56 klasikoak dira.

Klasiko bihurtzeko bidean dauden autoreak dira Weimarreko errepublikaren<sup>13</sup> garaian hasi eta 70eko hamarkadara arte lan egin zutenak: Otfried Preußler (1923-2013), Erich Kästner (1899-1974) eta Ursula Wölfen (1922-2014), besteak beste. Autore garaikideen taldean sartu ditugu 70eko eta 80ko hamarkadetatik gaur egunera arte idazten aritu direnak, Knister (1952), Christine Nöstlinger<sup>14</sup> (1936-2018), Joachim Friedrich (1953)


<sup>13</sup> 1919. urtetik 1933. urtera arte Alemaniak izan zuen erregimen politikoa izan zen.

<sup>14</sup> Christine Nöstlingerrek 1970eko eta 1980ko hamarkadak baino lehen ere idazten zuen, baina gerora idazten jarraitu zuen; horregatik sailkatu dugu idazle garaikideen artean.

eta Angela Sommer-Bodenburg (1948), esaterako. Gainerakoak klasikotzat hartu ditugu (garaiari zehazki begiratu gabe<sup>15</sup>): Jacob Grimm (1785-1863) eta Wilhelm Grimm (1786-1859), Immanuel Kant (1724-1804), Johann Wolfgang von Goethe (1749-1832) eta Karl Marx (1818-1883), adibidez.

Klasiko eta klasiko bihurtzeko dauden egileen artean, askori lan bakar bat edo bi baino ez zaizkie itzuli; beraz, obra kopuruari soilik begiratzen badiogu, orokorrean, obra garaikide gehiago itzuli dira, eta aldea handiagoa da.

Egileen sexuari dagokionez, ondorengo grafiko honetan ikusi daiteke gure katalogoan zenbat gizon eta zenbat emakume dauden:



6. Irudia. Alemanez idatzi duten idazleak, sexuaren arabera

Grafikoan egiazta daitekeen moduan, jatorrizko idazleen % 68,16 (bi heren inguru) gizonezkoak dira (136), eta % 31,84 emakumezkoak (63).


Literaturaren historia osoan zehar egon dira emakume idazleak; literaturari lotuta egon dira hasieratik. Baina XX. mendera arte, emakume askok anonimotasunean argitaratzen zuten, eta mende horretan zehar hasi ziren emakume idazle asko letren plazan agertzen. Horrek bat egiten du gure katalogoan dauden emakumezko idazle alemanekin, guztiak XX. eta XXI. mendekoak baitira.

#### 5.4. Itzultzaileak

Atal honetan itzultzaileengan jarriko dugu arreta. Euskal itzultzaileak zeintzuk izan diren argiago ikusteko, grafiko hau dugu. Autoreen kasuan gertatzen zen bezala, itzultzaile asko daude, eta ez dira denak agertzen, soilik esanguratsuenak/itzulpen gehien egin dutenak:

<sup>15</sup> Hala ere, XVIII. eta XIX. mendeetakoak dira denak.





7. Irudia. Alemanezko lanak euskaratu dituzten itzultzaileak

Guztira, 151 euskal itzultzaile aritu dira idazle eta egile alemanen obrak itzultzen.

Gehien itzuli duten itzultzaileak Pello Zabaleta eta Xabier Mendiguren Bereziartu dira. Lehenengoak 37 lan itzuli ditu, eta, bigarrenak, berriz, 32. Horien atzetik, Aiora Jaka dugu, 19 lan itzuli duela. Jarraian, Ihintza Elsenaar eta Joxantonio Ormazabal ditugu, 15 eta 14 lanekin, hurrenez hurren. Ondoren, Mari Eli Ituarte dago, 12 lanekin. Iñaki Aristondok, Antton Garikanok eta Juan Luis Urmenetak 11na liburu itzuli dituzte. Horien atzetik ditugu Aitor Arana eta Inazio Mujika Iraola, beste 10na itzulpenekin.

Pello Zabaleta (1896-1967) gipuzkoar idazle eta itzultzailea da. Alemanetik itzuli du, batik bat: Herman Hesse, Heinrich Böll eta E.T.A. Hoffman ditu euskaratuak, besteak beste. Hain zuzen ere, Euskarazko Literatur Itzulpenaren Euskadi Saria irabazi zuen, 1990ean, Böllen *Katarina Blumen ohore galdua* euskaratzeagatik<sup>16</sup>.

Xabier Mendiguren Bereziartu (1945) haur eta gazte-literaturako itzultzaile nekaezina da, batik bat ingelesetik eta alemanetik itzultzen aritu dena. Hala ere, haren itzulpen jarduna ez da narratiba eta saiakerara mugatzen: zenbait lan lexikografiko ere euskaratu ditu, eta EITBrentzako ikus-entzunezko itzultzailea ere izan da. Itzulpen jardunaz gain, obra orijinalak ere idatziak ditu, batik bat kontakizunak eta politikaren eta historiaren inguruko entseguak.

Mendigurenen saiakerei dagokienez, ezinbestekoa da traduktologiari eta itzulpengintzaren historiari buruzko zenbait lan aipatzea: *Itzulpen teoriatzko ezagupenak*


<sup>16</sup> Iturria: <http://nordanor.eus/nor?id=89>

(Lazkao, Pax, 1982), *Itzulpengintza, historia eta teoria* (Donostia, Elkar, 1995), *Euskal Itzulpengintzaren Historia Laburra* (Donostia, Elkar, 1995). Obra horietan itzulpengintzari buruzko teorizatorik garrantzitsuenak bildu zituen, euskarazko itzulpengintza periodizatu eta aztertzeke ahalegin handiak egiteaz batera<sup>17</sup>.

Aiora Jaka (1982) Gasteizko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziatura 2000 eta 2004 urteen artean ikasi zuen lehen promozioko ikasleetako bat izan zen. Haur- eta gazte-literaturako liburuak itzultzen aritu da, bereziki. 2011n Haur Literaturako Vitoria-Gasteiz saria jaso zuen Janosch alemanaren *Esan, ama, nork egiten ditu umeak?* liburuaren itzulpenagatik<sup>18</sup>.

Joxantonio Ormazabal (1948-2010) euskal idazlea eta itzultzailea izan zen. Euskarazko haur eta gazte-literaturaren esparruan lan egin zuen, idazle, itzultzaile eta editore.

Euskal itzultzaileen sexuari erreparatzen badiogu, grafiko honetan ikusi daiteke zenbat gizon eta zenbat emakume dauden gure katalogoan:



8. Irudia. Euskal itzultzaileak, sexuaren arabera

Grafikoan egiaztatu daitekeen moduan, eta autoreekin gertatzen zen bezala, itzultzaileen % 66,89 (bi heren inguru) gizona dira (101), eta % 33,11 emakume dira (50).

Alemanezko liburu bat euskarara itzuli zuen lehen emakumea Pilar Iparragirre<sup>19</sup> izan zen; 1983an *Sorgin txikia* argitaratu zen, Otfried Preußlerren *Die kleine Hexe* liburuaren itzulpena.

<sup>17</sup> Iturria: <http://nordanor.eus/nor?id=59>

<sup>18</sup> Iturria: <http://nordanor.eus/nor?id=225>

<sup>19</sup> Pilar Iparragirre (1951) euskal idazle eta kazetaria da, eta haur eta gazteentzako lanak ere itzuli ditu.


1980-1990 bitartean, emakumeek sinatutako 11 itzulpen argitaratu ziren. 1990-2000 tartean, emakumeek sinatutako 21 itzulpen argitaratu ziren. 2000-2010 artean, emakumeek sinatutako 38 itzulpen argitaratu ziren. 2010. urtetik gaur egun arte, berriz, emakumeek sinatutako 85 itzulpen argitaratu dira. Goranzko joera nabarmena dela ikusi daiteke, batez ere azken 10 urteotan.

Gainera, esan beharra dago gehien itzuli duten euskal itzultzaileen artean ere emakumeak egon badaudela: nabarmentzekoak dira, esaterako, Aiora Jaka (19 lan euskaratu ditu), Ihintza Elsenaar Argaña (15 lan euskaratu ditu), eta Mari Eli Ituarte (12 lan euskaratu ditu).

Mahai gainean jarri genezakeen beste galdera interesgarri bat da itzultzaile horiek guztiak itzultzaile profesionalak diren eta genero zehatzak (adib. HGL) itzultzeaz arduratzen diren beti, edo itzulpengintza jardun osagarria ote den haientzat.

### 5.5. Argitaletxeak

Analisiarekin bukatzeko, argitaletxeei erreparatuko diegu atal honetan. Euskal itzulpenak zein argitaletxek kaleratu dituen argiago erakuste aldera, ondorengo grafikoa prestatu dugu. Argitaletxe asko dira, eta ez dira denak agertzen, baizik eta itzulpen gehien plazaratu dituztenak:



9. Irudia. Jatorrizko literatur lan alemanen euskal itzulpenak argitaratu dituzten argitaletxeak

Guztira, 57 argitaletxek argitaratu dituzte jatorrizko liburu alemanen euskarazko itzulpenak.

Itzulpen gehien argitaratu dituen argitaletxea Elkar da, 72 lan kaleratu baititu. Ttartalo eta Bruño argitaletxeak datoz atzetik, 54 eta 48 lanekin, hurrenez hurren. Bruño

argitaletxearen kasuan, argitaratu dituen 48 lanetatik 41 Knisterren liburuen itzulpenak dira; horrek estrategia komertziala iradokitzen digu. Laugarren postuan Desclée de Brouwer dago, 31 lanekin; eta, jarraian, Ibaizabal, 29 lan argitara eman dituela. Horien atzetik, Alberdania (27 itzulpen argitaratu ditu), Klasikoak SA (24 itzulpen argitaratu ditu) eta Ediciones SM (22 itzulpen argitaratu ditu) eta Erein (19 itzulpen argitaratu ditu) ditugu.

Elkar argitaletxea euskal kultura bultzatzeko asmoz sortu zen, 1975ean. Diskogintzan eta liburugintzan espezializatu da; horrela, sorburu-lanak zein itzulpenak argitaratzen ditu, euskal musikari nahiz idazleen lanak plazaratzeko, eta baita euskal kulturaren dauden hutsune eta beharrak asetzen laguntzeko ere. Elkar-eko katalogoan 2500 erreferentziatik gora biltzen dira.

Ttarttalo argitaletxea Elkar Fundazioaren baitan dago, eta oso arlo desberdinetako liburuak argitaratzen ditu, euskaraz zein gazteleraz. Bere argitalpenen artean narratiba eta haurrentzako liburuak aurki ditzakegu, beste askoren artean. Horien bitartez, Tarttalok ekarpena egiten du euskal identitatea, kultura eta literatura ezagutarazteko eta zabaltzeko.

Bruño erreferentziatzko zigilua da eskola-liburuen edizio gintzan. 1988an, ia mende bateko ibilbidearen ondoren, haur- eta gazte-literaturako bildumak argitaratzeari ekin zion. Bruño-Salvat argitaletxeak haur eta gazteentzako argitalpenetan espezializatutako katalogoa du, mundu osoan ezagunak diren pertsonaiak barne hartzen dituena, hala nola, Kika Supersorgina eta Asterix.

Desclée De Brouwer (DDB) 1945ean Bilbon sortutako enpresa da. Euskarazko teologia, psikologia, autolaguntza, pedagogia, enpresa-kudeaketa eta haur- eta gazte-literaturako liburuetan dago espezializatua.

26 argitaletxe daude, hau da, argitaletxe guztien erdiak, lan bakar bat edo bi lan besterik ez argitaratu dituztenak (Pasazaite eta Kriselu, esaterako). Beste erdiari dagokionez, oso argitaletxe gutxik pilatzen dituzten itzulpen gehienak<sup>20</sup>.

---

<sup>20</sup> EIZI Eren Literatura Unibertsala bildumako itzulpenei erreparatzen badiegu, esanguratsua da euskarazko lan guztiak (ez bakarrik alemanetik itzulitakoak), Ibaizabalek, Elkarrek, Alberdaniak, Ereinek eta Igelak argitaratu dituztela, garaiaren eta unean uneko hitzarmenen arabera.

## 6. Ondorioak

Lan honetan, zailtasun handienak katalogoa sortzeko unean izan ditugu; datu-baseak ez daude eguneratuta, eta batzuetan informazioa oker dago. Beraz, informazioa egiaztatu behar izan dugu, autoreen biografiak banan-banan begiratzuz eta jatorrizko obrak bilatuz. Alemanetik euskaratutako literatur lanen -liburu formatua badute, behinik behin- ahalik eta katalogo osatuena sortzen saiatu gara, baina baliteke itzulpenen bat nahi gabe ahaztu edo kontuan hartu ez izana. Gainera, historian zehar liburuak itzultzea etengabeko praktika izan arren, horren erregistro zentralizatua oso berria da (datu-baseak 1972 eta 1979 urteetan sortu ziren); liburu eta itzulpen batzuen kasuan, urte asko pasa dira argitaratu zirenetik eta ezinezkoa izan da horien inguruko datu guztiak jasotzea.

Oso garrantzitsua da datu-baseak eta corpusak etengabe osatzea eta eguneratzea, datuak ez baitira estatikoak. Hori izan da, gure ustez, lan honen ekarpen nagusia: alemaneko lanei trataera berezia eskaintzea eta sakonago aztertzea, eta, horrekin batera, katalogoa eguneratzea.

Beste zailtasun bat liburuak literatur generoaren arabera sailkatzea izan da, lehen aipatu dugun arrazoiagatik, hau da, horien arteko mugak ez direlako zehatzak, eta batzuetan, generoak nahastu egin daitezkeelako (Friedrich von Schillerren *Wilhelm Tell* liburuaren kasuan bezala).

HGLaren harira, galdera berriak sortu zaizkigu; izan ere, beti sailkatzen ditugu haur- eta gazte-literatura elkarrekin, baina gutxitan agertzen/aztertzen dira biak modu isolatuan. Zergatik? Ez ote da biak bereiztea ere zilegi? Non bukatzen da Gazte literatura eta hasten helduena? Nork erabakitzen du liburu jakin bat gazte literaturakoa den, kontuan hartuta helduek ere irakurriko dutela? Zer pisu dute horretan argitaletxeen erabakiek?

Analisia egin baino lehen zenbait uste genuen, eta batzuk bete egin dira, baina beste erantzun batzuek harritu egin gaituzte. Alde batetik, uste genuen itzulpen gehienak XX. eta XXI. mendekoak eta haur- eta gazte-literaturakoak izango zirela, eta datuek hori berretsi digute. Beraz, hipotesia bete egin dela esan genezake. Hala ere, kontuan hartzen badugu gehien itzuli den literatur generoa narratiba dela, eleberriaren (% 11,81) eta saiakeraren (% 11) artean alde handiagoa topatzea espero genuen, hau da, eleberri gehiago eta saiakera gutxiago; hala ere, bien artean % 0,81eko aldea dago soilik. Itzulitako poesiaren eta antzerkiaren kopuruak oso txikiak dira, baina horrek ez gaitu harritu. Halaber, azpimarratu nahi dugu deigarria dela alemanezko lan askoren euskarazko lehen itzulpena hain berantiarra izatea.

Orokorrean, heterogeneotasuna dago jatorrizko autoreei dagokienean. 5 egileren kasuan baino ez dira pertsona bakoitzeko 10 liburu edo gehiago itzuli (Knister, Grimm anaiak, Christine Nöstlinger, Sabine Lohf eta Mira Lobe); denak ere HGLaren esparrukoak dira; hala ere, gehiengoaren kasuan, idazle bakoitzeko lan bakar bat edo bi besterik ez dira itzuli. Bestalde, joera nagusia egile eta obra garaikideak itzultzea da, baina klasiko bihurtzeko bidean dauden autore eta lan dezente ere itzuli dira, klasiko batzuk ahaztu gabe.

Gainera, ohartu gara gure datuek bat egiten dutela, hein handi batean, López Gaseniren 2000ko eta 2008ko datuekin. Beraz, badirudi beste hizkuntza batzuetatik euskaraturiko lanak aztertzean lortutako ondorioak alemanetik itzultzerako unean ere betetzen direla. Are gehiago, urte batzuk igaro izanagatik, López Gasenik eta Zubillagak identifikatu zituzten antzeko joerak topatu ditugula esan genezake.

Itzultzaileen kasuan, Pello Zabaleta (37 itzulpen) eta Xabier Mendiguren Bereziartu (32 itzulpen) dira gehien itzuli dutenak, baina asko dira 5 lan baino gehiago itzuli dituztenak (guztira 20 itzultzaile): 9 itzultzailek 10-20 lan itzuli dituzte, eta 11 itzultzailek 5-9 liburu. Hala ere, gehienek lan bakar bat edo bi besterik ez dituzte itzuli.

Esan bezala, itzulpengintza oso praktika zaharra da, eta profesionalak ez diren itzultzaile asko aritu dira lan horretan. Hala ere, itzulpen gehien argitaratu dituzten itzultzaileen zerrenda horretan agertzen diren itzultzaile gehienak profesionalak dira.

Sexuari dagokionez, bai alemanezko egileen bai itzultzaileen kasuan, desoreka nabarmena dago, bi multzoetan gizonak baitira nagusi. Nahiz eta azken urteotan kopuruak parekatu (batez ere, itzultzaileen kasuan, euskal emakume itzultzaileen goraka oso nabarmena da), lanean jarraitu behar dugu berdintasuna eta oreka erdietsi ahal izateko. Garrantzitsua da hori; izan ere, beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, zenbat eta emakume itzultzaile erreferente gehiago egon, orduan eta emakume gazte gehiago animatuko dira itzulpengintza profesionalaren munduan murgiltzera, eta horrela, geroz eta presentzia handiagoa izango dugu.

Euskal itzulpengintzaren esparruan bertan, gauzak aldatzen ari dira, eta Bego Montoriok aurkeztutako datuek ere hala erakusten digute<sup>21</sup>: 1990etik 2004ra bitartean,

---

<sup>21</sup> Iturria: <http://www.uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/zergatik-dira-direnak-emakume-itzultzaileak>

euskaratutako obren % 82 gizonen sinatutako itzulpenak izan ziren, eta % 18 emakumezkoen sinatuak. 2005etik 2013ra bitartean, berriz, % 72 izan ziren gizonen sinatuak, eta % 28 emakumeen sinatuak. Azkenik, 2014tik gaur egun arte % 68 gizonen sinatuak izan dira, eta % 32 emakumeen sinatuak. Aldea nabarmena da oraindik ere, baina ehunekoak parekatzen ari dira.

Argitaletxei dagokienez, estrategia komertzialetara jotzen dute egile batzuen itzulpenak kaleratzeko; nabarmena da hori Knisterren kasuan, esaterako. Bestalde, hiruzpalau argitaletxe kenduta (Elkar, Tarttalo, Bruño), gehienak oso txikiak dira eta horietako bakoitzak itzulpen gutxi argitaratu du. Esan daiteke, oro har, heterogeneotasun handia dagoela argitaletxeen artean.

Bestalde, ikusi dugu obra jakin batzuk berriro itzultzeko joera dagoela (hala nola, Michael Enderen *Momo* eta Friedrich von Schiller-en *Wilhelm Tell*), eta garai bakoitzak modu ezberdinean itzultzen eta interpretatzen dituela. Gehiago sakontzeko, testuak eta paratestuak aztertu beharko genituzke, baina nabarmena da, oro har, itzulpenen artean dagoen aldea. Gainera, azken urteotan alemanetik itzultzen dira lanak, zuzenean, eta duela gutxira arte gaztelaniaren bidez, orokorrean. Horrek adierazten digu argitaletxeen irizpideak ere aldatzen ari direla.

Etorkizunari begira, analisi zehatzago bat egitearren, interesgarria izan daiteke espazio faltagatik lan honetatik kanpo utzi ditugun beste faktoreak aztertzea, besteak beste, itzulpenak zuzenekoak edo zeharkakoak diren, testuen analisi linguistikoa, eta paratestuak.

Beste ikerketa ildo bat izan daiteke datu hauek euskaratik alemanera itzuli denarekin konparatzea. 2019an, Babianok Master Amaierako Lanean alemanera itzultitako euskal literatura aztertu zuen, eta horri buruzko tesia egiten ari da. Beraz, agian datu horiek hartu daitezke oinarritzat alderaketa egiteko. Izan ere, aurreikusten dugu kopuruetan alde handia egongo dela, hau da, euskaratik alemanera askoz ere gutxiago itzuli dela, alemanetik euskarara baino. Horretaz gain, Elizabete Manterolak tesirako prestatu zuen ELI (Euskal Literatura itzulua) katalogoa ere badugu, eta interesgarria izan liteke gure datuak horkoekin alderatzea.

Analisi bera egin dezakegu beste hizkuntzei dagokienez ere, hala nola, ingelesetik eta frantsesetik (beste bi hizkuntza handi/hegemoniko aipatzearen) itzultitakoak aztertu eta alemanarekin konparatu, proportzionalki hizkuntza bakoitzeko literaturak euskaraz duen

pisua ikusteko. Gainera, Penintsulako beste hizkuntza batzuen kasuan (katalana eta galiziera, esate baterako) zer gertatzen den aztertu liteke, euskararen datuekin konparatuz.

Ezin aipatu gabe utzi lan honetan itzulitako liburuak jasotzera mugatu garela, baina badirela ipuin, poema eta bestelako testu laburrak euskaratu eta aldizkari edo egunkarietan modu soltean eman dituztenak (adib. Jon Mirande) ere bai.

López Gaseniren eta Zubillagaren lanetan ikusi dugun bezala, orain arte ditugun datu gehienak HGL-koak dira, eta apenas dago alemanetik itzulitako literatur genero guztiak kontuan hartzen dituen lan edo ikerketarik; hortaz, interesgarria izango litzateke datuok osotasunean ulertzea, genero bakoitzak duen pisua ezagutzeko. Espero dugu lan honen bidez ekarpen txoa egin eta ikerketa-ildo berriak zabaldu izana.



## 7. Bibliografia

Arrue Rezola, Gregorio (1987), *Santa Jenobebaren bizitza*, Donostia: Erein.

Babiano López de Sabando, Mikel (2019), *Alemanera itzulitako euskal literatura*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. (Master Amaierako Lana, argitaragabea)

Bloom, Harold (1994), *The Western Canon: The Books and School of the Ages*. Harcourt Brace.

Catford, John Cunnison “Ian” (1965), *A linguistic theory of translation*, Oxford University Press.

Even-Zohar, Itamar (1979), *Polysystem Theory*. *Poetics Today* 1(1-2, Autumn) pp. 287-310.

Even-Zohar, Itamar (2010). *The Making of Culture Repertoire and The Role of Transfer*.

Harluxet hiztegi entziklopedikoa: <http://www1.euskadi.net/harluxet/> [Azken kontsulta: 2020/04/28]

Hermans, Theo (1999), *Translation in Systems: Descriptive and System-Oriented Approaches Explained*, Manchester: St. Jerome.

Jaka Irizar, Aiora (2005), *Euskal Literatura eta Itzulpengintza*.

Kortazar Uriarte, Jon (2002), *Diglosia eta euskal literatura*, Donostia: Utriusque Vasconiae.

Lakarra, Joseba (2009). *Campus* 67. *UPV/EHUko aldizkaria*, 30-31. or. [https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus\\_67](https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus_67) [Azken kontsulta: 2020/05/11]

López Gaseni, Manu (2000), *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, UPV/EHU. (Doktore-tesia)

López Gaseni, Manu (2009), «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)», *Senez*, 37.

Manterola Agirrezabalaga, Elizabete (2012), *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Ataxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.

Mendiguren Bereziartu, Xabier (1992), *Itzulpengintza. Historia eta teoria*, Donostia: Elkar, Jakintza.

Miralles, Francesc (2000), *Franz Kafka*. Océano Grupo Editorial, S.A: Barcelona.

Nida, E. A. & Taber, C. R. (1974), *The theory and practice of translation*, Leiden: United Bible Societies.

NorDaNor-eko itzultzaileen kontsulta: <http://nordanor.eus/> [Azken kontsulta: 2020/04/24]

Torrealdai, Joan Mari (2007), *30 urte liburugintzan*, Donostia: Jakin.

Toury, Gideon (1980), *In search of a theory of translation*. Porter Institute for Poetics and Semiotics, Tel Aviv: Tel Aviv University.

Venuti, Lawrence (1995), *The Translator's Invisibility: A History of Translation*, London and New York: Routledge.

Weber, George (Dec, 1997), *Top Languages: The World's 10 Most Influential Languages*. Language Today (2. liburukia).

Zabaleta Kortabarría, Josu (2013), *Gregorio Arrue Rezola (1811-1890) Euskal itzultzaile trebe eta oparoa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Zubillaga Gómez, Naroa (2013), *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. (Doktore-tesia)

**Katalogoa sortzeko erabili ditugun datu-baseak:**

- EIZIEren NorDaNor datu-basea:  
[http://nordanor.eus/bilatu?n=1&e\\_or=&e\\_xt=&e\\_st=&e\\_eg=&e\\_it=&e\\_ar=&e\\_ge=&e\\_sh=33&e\\_xh=42&e\\_sd1=&e\\_sd2=&e\\_xd1=&e\\_xd2=](http://nordanor.eus/bilatu?n=1&e_or=&e_xt=&e_st=&e_eg=&e_it=&e_ar=&e_ge=&e_sh=33&e_xh=42&e_sd1=&e_sd2=&e_xd1=&e_xd2=) [Azken kontsulta: 2020/04/15]
  
- Espainiako Gobernuko Kultura eta Kirol Ministerioko ISBN katalogoa:  
[http://www.mcu.es/webISBN/tituloSimpleFilter.do?cache=init&prev\\_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es](http://www.mcu.es/webISBN/tituloSimpleFilter.do?cache=init&prev_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es) [Azken kontsulta: 2020/04/15]
  
- Unescoren Index Translationum datu-basea:  
<http://www.unesco.org/xtrans/bsresult.aspx?a=&stxt=&sl=deu&l=eus&c=&pla=&pub=&tr=&e=&udc=&d=&from=&to=&tie=a> [Azken kontsulta: 2020/04/15]
  
- Armiamako Euskarari Ekarriak datu-basea: <https://ekarriak.armiarma.eus/> [Azken kontsulta: 2020/05/20]

## I. Eranskina: Katalogoa

Hona hemen gure analisia egiteko erabili ditugun itzulpenak; egileak alfabetikoki daude zerrendatuta. Bestalde, itzulpenaren argitalpen urtea, itzultzailearen izena, argitaletxea eta generoa ere jaso ditugu. Kasu batzuetan hutsuneak daude, ez baitugu, askotariko arrazoiak direla-eta, informazio hori lortzerik izan.

Jatorrizkoa	Egilea	Urt.	Itzulpena	Itzultzailea	Argitaletxea	Generoa
<i>Asterix und das Atomkraftwerk</i>		1980	<i>Asterix eta zentral nuklearra</i>			Komikia
		1992	<i>Odak eta epodoak</i>	Onaindia Baseta, Santiago	Onaindia Baseta, Santiago	Poesia
		1992	<i>Prozesu kontable eta administratiboa</i>	Armendáriz Alegría, Peio	Armendáriz Alegría, Peio	Eskuliburu
		2009	<i>Animalia txikiak</i>		Donostia: Ttartalo	HGL
		2009	<i>Animalien familia</i>		Donostia: Ttartalo	HGL
		2010	<i>Erreforma protestanteetako idazkiak</i>	Zabaleta, Pello	Euba: Ibaizabal	Saiakera
		2012	<i>Zirrimarrak</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Ttartalo	HGL
<i>Blöde Ziege, Dumme Gans</i>	ABEDI, Isabel	2010	<i>Antxume tentela! Ahate txepela!</i>	Barreña, Ainara	Donostia: Ttartalo	HGL
<i>Moralische Selbstbestimmung: Modelle der</i>	ALTHOF, Wolfgang; OSER, Fritz	1998	<i>Autodeterminazio moralak: hezkuntza eta garapen</i>	Morales Belda, Koldo	Leioa: Euskal Herriko Unibertsitate	Saiakera

<i>Entwicklung und Erziehung im Wertebereich</i>			<i>ereduak balioen eremuan</i>		a, Argitalpen Zerbitzua	
<i>Till Eulenspiegel</i>	Anonimoa	1980	<i>Till Eulenspiegel</i>	“Txiliku” Olaizola, J.M.	Donostia: Elkar	Eleberria
<i>Till Eulenspiegels lustige Streiche</i>	Anonimoa	1981	<i>Till Eulenspiegel: jaiotzatik bihurri</i>	Ibargutxi Otermin, Felix	Donostia: Hordago, Lur	Eleberria
<i>Einfach nur Liebe: Sandra liebt Meike</i>	AROLD, Marliese	2004	<i>Maitasuna besterik ez</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	HGL
<i>Abgerutscht: Nina reifst aus</i>	AROLD, Marliese	2010	<i>Ninak ospa</i>	Berasategi, Joxe Mari; Berasategi, Maialen	Donostia: Elkar	HGL
	Ars Edition	2012	<i>Animalien kumeak</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Tarttalo	HGL
	Ars Edition	2012	<i>Baserriko animaliak</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Tarttalo	HGL
	Ars Edition	2014	<i>Muu</i>	Elsenaar Argaia, Ihintza	Donostia: Tarttalo	HGL
	Ars Edition	2014	<i>Plisti plasta</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Tarttalo	HGL
	Ars Edition	2015	<i>Handia eta txikia</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Tarttalo	HGL
	Ars Edition	2015	<i>Katua eta sagua</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Tarttalo	HGL

	Ars Edition	2016	<i>Entzun, nor izango da? Animaliak laztantzen</i>	Bakun	Donostia: Ttarttalo	HGL
	Ars Edition	2016	<i>Entzun, nor izango da? Itsasaldean</i>	Bakun	Donostia: Ttarttalo	HGL
	Ars Edition	2019	<i>Oporretako nire zirrimarra-liburua</i>	Bakun	Donostia: Ttarttalo	HGL
	Ars Edition	2019	<i>Udaberriko nire zirrimarra-liburua</i>	Bakun	Donostia: Ttarttalo	HGL
	BACHMANN, Ingeborg	2015	<i>Poesia kaiera (Ingerborg Bachmann antologia)</i>	Tolosa, Nagore	Donostia: Susa	Poesia
<i>Simultan</i>	BACHMANN, Ingeborg	2019	<i>Aldibereko</i>	Santamaria, Idoia	Donostia: Erein; Iruñea: Igela	HGL
	BANSCHERUS, Jürgen	1991	<i>Treneko saga</i>	Zabaleta, Pello	Arrigorriaga: Ediciones SM	HGL
<i>Ein schönes Leben für die kleine Henne</i>	BARTOS-HÖPPNER, Barbara	1982	<i>Txitarentzat bizitza eder bat</i>		Irbis	HGL
<i>Die Söhne der Steppe</i>	BAUMANN, Hans	1981	<i>Estepako semeak. I</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Hordago, Lur	HGL
<i>Die Söhne der Steppe</i>	BAUMANN, Hans	1981	<i>Estepako semeak II</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Hordago, Lur	HGL
<i>Küchengeschichten</i>	BAUMANN, Kurt	1982	<i>Lehortu Ontziteria</i>	Kalekumeak	Madril: Altea	HGL

	BENJAMIN, Walter	2015	<i>Denbora, historia eta artearen inguruko testuak</i>	Babiano, Mikel; Donés, Amaia; Pradera, Teresa; Sarrigurete Mochales, Danele; Segura, Iñaki	Bilbo: Sans Soleil	Saiakera
	BENJAMIN, Walter	2015	<i>Literatura obrak</i>	Arrula, Garazi; Berasategi, Maialen; Igartua, Mikel; Urturi Aldama, Gaizka	Bilbo: Sans Soleil	Saiakera
	BERNER, Rotraut Susanne	2008	<i>Txarliren kontuak: ozen irakurtzeko marraski liburu bat</i>	Elorrieta, Irati	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	HGL
<i>Der Untergeher</i>	BERNHARD, Thomas	2009	<i>Alferrikaldua</i>	Uribarri, Ibon	Donostia: Elkar	Eleberria
<i>Kindergeschic hten</i>	BICHSEL, Peter	1986	<i>Amerikarik ez dago</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Erein	HGL
	BIRKENSTOCK, A.K.	2011	<i>Kuak, kuak! Badator ahatetxo txikia</i>	Elsenaar Argaia, Ihintza	Donostia: Ttartalo	HGL

<i>Atheismus im Christentum</i>	BLOCH, Ernst	1993	<i>Ateismoa kristautasunean</i>	Zabaleta, Pello	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
	BOHM, Anne	2010	<i>Hatzekin jolasteko liburua</i>	Elsenaar Argiaia, Ihintza	Donostia: Ttartalo	HGL/ Jolas liburua
<i>Ansichten eines Clowns</i>	BÖLL, Heinrich	1986	<i>Pailazo baten aburuak</i>	Azpiroz, Jose Antonio	Donostia: Elkar	Eleberria
<i>Die verlorene Ehre der Katharina Blum</i>	BÖLL, Heinrich	1989	<i>Katharina Blumen ohore galdua</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	Eleberria
	BONHOEFFER, Dietrich; FRANCESCO d'Assisi, St; IGNACIO DE LOYOLA, St; TAGORE, Rabindranath; THOMAS AQUINAS, St; et al.	2006	<i>Aitarekin otoitzean</i>	Etxeberria, Aitor	Durango: Uribarriko Andra Mari Eliza	Eskuliburu
<i>Geschichten vom Herrn Keuner</i>	BRECHT, Bertolt	1999	<i>Keuner jaunaren kondairak</i>	Garzia, Joxerra	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	Eleberria
<i>Leben des Galileo Galilei</i>	BRECHT, Bertolt	2004	<i>Galileoren bizitza: drama</i>	Billelabeitia, Miren	Bilbo: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte	Antzerkia
<i>Der kaukasische Kreidekreis</i>	BRECHT, Bertolt	2006	<i>Kaukasiar kreazko borobila</i>	Borda, Itxaro	Bilbo: Artezblai	Antzerkia



	BRECHT, Bertolt	2009	<i>Teatro hautatua</i>	Onaindia, Mario	Donostia: Hiria	Antzerki a
<i>Die Sieben Todsünden der Kleinbürger</i>	BRECHT, Bertolt	2014	<i>Burges ttipien zazpi bekatu buruzagi</i>	Muñoa Salaberri, Patxi		Poesia
<i>Das Geheimnis der grünen Geisterbahn</i>	BREZINA, Thomas	1996	<i>Sorgin-tren berdearen misterioa</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Gruselnd auf dem Stundenplan</i>	BREZINA, Thomas	1997	<i>Ikasplanaren beldurra</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Ferien im Spukhotel</i>	BREZINA, Thomas	1998	<i>Hotel sorginduko oporrak</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Unternehmen Schwesternsch reck</i>	BREZINA, Thomas	1999	<i>Arreba izutu operazioa</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Das Skelett im Jet</i>	BREZINA, Thomas	2000	<i>Eskeleto bat hegazkinez</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Grüsse aus dem Geisterschloss</i>	BREZINA, Thomas	2001	<i>Diosalak espirituen gaztelutik</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>In Wirklichkeit ist Alles Ganz Anders</i>	BRÖGER, Achim	1985	<i>Bertatik ikusita beste era batera dira gauzak</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	HGL
<i>Oma und ich</i>	BRÖGER, Achim	1990	<i>Amona eta biok</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Donostia: Elkar	HGL
<i>Woyzeck</i>	BÜCHNER, Georg	1989	<i>Woyzeck-en kondaira</i>	Anselmi, Luigi	Donostia: Hiria	Antzerki a

<i>Eins zwei drei Tier</i>	BUDDE, Nadia	2018	<i>Bat bi hiru banpiro</i>		Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
<i>Max und Moritz</i>	BUSCH, Wilhelm	1991	<i>Max eta Moritz: zarpi barrabaskeriata n motikoen pasadizo bat</i>	Zabaleta, Pello	Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
<i>Der Himbeerrote Drache</i>	BYDLINSKI, Georg	1993	<i>Marrubi koloreko herensugea</i>	Ceberio Berger, Gabriel	Arrigorriaga: Ediciones SM	HGL
<i>Die gerettete Zunge: Geschichte einer Jugend</i>	CANETTI, Elias	2014	<i>Mihia aske: gaztaro baten istorioa</i>	Uribarri, Ibon	Donostia: Erein	Eleberria
	CELAN, Paul	2016	<i>Poesia kaiera (Paul Celan antologia)</i>	Montoia, Xabier	Donostia: Susa	Poesia
<i>Peter Schlemihls wundersame Geschichte</i>	CHAMISSO, Adelbert von	1995	<i>Peter Schlemihl-en istorio miresgarria</i>	Garikano, Antton	Euba: Ibaizabal	Eleberria
<i>Erste Bilder- Erste Farben Zuhause</i>	Coppenrath Verlag	2013	<i>Ikusi makusi, zer ikusi... etxe barruan</i>	Astigarraga, Itxaso	Madril: Bruño	HGL
<i>Erste Bilder- Erste Farben Draussen</i>	Coppenrath Verlag	2013	<i>Ikusi makusi, zer ikusi... etxe kanpoan</i>	Astigarraga, Itxaso	Madril: Bruño	HGL
<i>Einleitung in die Geisteswissenschaften</i>	DILTHEY, Wilhelm	1995	<i>Izpiritu-zientzietarako sarrera</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera

<i>Berlin Alexanderplatz</i>	DÖBLIN, Alfred	2000	<i>Berlin Alexanderplatz: Franz Biberkopfen istorioa</i>	Garikano, Antton	Euba: Ibaizabal	Eleberria
<i>Jim Knopf und Lukas der Lokomotivführer - Gesammelte Abenteuer</i>	DÖLLING, Beate; ENDE, Michael	2017	<i>Jim botoi eta lukas tren gidaria txangoan doaz</i>	Erkizia, Lola; Giménez Bech, Jorge	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	HGL
<i>Die Panne</i>	DÜRRENMATT, Friedrich	1992	<i>Matxura</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Donostia: Erein	Eleberria
<i>Der Richter und sein Henker</i>	DÜRRENMATT, Friedrich	2018	<i>Epaillea eta haren borreroa</i>	Santamaria, Idoia	Donostia: Erein	Eleberria
<i>Die kleine Bibel</i>	ECKER, Jakob	1969	<i>Umeen biblia</i>	Kerexeta, Jaime	Lizarra: Verbo Divino	Erreferen- tzia- materiala
<i>Mein weltbild</i>	EINSTEIN, Albert	1993	<i>Munduaz dudana ikuspegia</i>	Azkune Mendia, Iñaki	Donostia: Gaiak	Saiakera
	EINSTEIN, Albert	2008	<i>Erlatibitatearen teoria: Einsteinek berak azaldua</i>	Etxebarria, Jose Ramon	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
<i>Die Ostergeschichte</i>	ELSCHNER, Geraldine	2005	<i>Pazkoko txitatxoa</i>	Erkizia, Lola; Mujika Iraola, Inazio	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	HGL

<i>Momo</i>	ENDE, Michael	1988	<i>Momo</i>	Otxoa, Agustin	Bilbo: Desclée de Brouwer; Madril: Alfaguara	HGL
<i>Die unendliche Geschichte</i>	ENDE, Michael	1990	<i>Amaigabeko istorioa</i>	Ugidos, Amaia	Bilbo: Desclée de Brouwer; Madril: Alfaguara	HGL
<i>Das Gauklermärch en</i>	ENDE, Michael	1995	<i>Jojo, pailazo baten historia</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Momo</i>	ENDE, Michael	1998	<i>Momo</i>	Basterretxea , Ainhoa	Leioa: Zubia	HGL
<i>Die Zauberschule und andere Geschichten</i>	ENDE, Michael	2010	<i>Magia-eskola desioen erreinua</i>	Zubillaga, Naroa	Bilbo: Aizkorri	HGL
<i>Die unendliche Geschichte</i>	ENDE, Michael	2019	<i>Istorio amaigabea</i>	Gillenea, Idoia	Etxebarri (Bizkaia): Begiko	HGL
<i>Momo</i>	ENDE, Michael	2019	<i>Momo</i>	Babiano, Mikel	Leioa: Zubia	HGL
<i>Manifest der kommunistisch en Partei</i>	ENGELS, Friedrich; MARX, Karl	1998	<i>Alderdi komunistaren manifestua</i>	Kintana, Xabier	Jakin	Saiakera
<i>Vom kleinen Maulwurf, der wissen wollte, wer ihm auf</i>	ERLBRUCH, Wolf; HOLZWARTH, Werner	1999	<i>Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo</i>		Pontevedra: Kalandraka	HGL

<i>den Kopf gemacht hat</i>						
<i>Anatomisches Bildwörterbuch</i>	FENEIS, Heinz	1998	<i>Giza anatomiako poltsiko atlasa</i>	Agirre Lasarte, Xabier	Usurbil: Elhuyar	Eskuliburu
	FERNÁNDEZ-CID, Miguel; MÜNSTER, Erich Franz	2012	<i>Plágaro</i>	Carter, Tiffany Möttingdörfer, Richard	Gasteiz: Artium	Erakusketakatalogoa
<i>Der Gedankensammler</i>	FETH, Monika	2004	<i>Jaungri: pentsamendu biltzailea</i>	Euba, Ane	Donostia: Hiria	HGL
<i>Nino Däumling</i>	FEUSTEL, Günther	1983	<i>Nino suerte bila</i>	Urbistondo, David	Donostia: Elkar	HGL
<i>Annas Geschichte</i>	FIECHTNER, Urs M.	1994	<i>Anaren historia</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Donostia: Elkar	HGL
<i>Kunst und Koexistenz</i>	FISCHER, E.	2009	<i>Artista eta bere garaia</i>	Onaindia, Mario	Donostia: Hiria	Saiakera
	FLAD, Antje	2010	<i>Emil hartzkumezuria</i>	Aztiri itzulpen zerbitzuak	Donostia: Ttartalo	HGL
<i>trotzdem Ja zum Leben sagen: Ein Psychologe erlebt das Konzentrationslager</i>	FRANKL, Viktor E.	2017	<i>Gizakia zentzubitila</i>	Arratibel, Miren; Oihartzabal, Lontxo	Donostia: Erein	Saiakera

<i>Darstellungen der Psychoanalyse</i>	FREUD, Sigmund	1996	<i>Psikoanalisiaren aurkezpena</i>	Oihartzabal, Lontxo	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
<i>Die Zukunft einer Illusion</i>	FREUD, Sigmund	1998	<i>Ilusio baten etorkizuna</i>	Bergara Amaia; Salaberri Muñoa, Patxi	Jakin	Saiakera
<i>Das Unbehagen in der Kultur</i>	FREUD, Sigmund	2009	<i>Egonezina kulturaren</i>	Insausti, Xabier; Intxauspe, Jesus Mari	Donostia: Gaiak	Saiakera
<i>4 ½ Freunde und die Weihnachtsmann-Connection</i>	FRIEDRICH, Joachim	2009	<i>Papa Noelen kasua</i>	Arrieta, Yolanda	Bilbo: Giltza	HGL
<i>4 1/2 Freunde und das Krokodil im Internet</i>	FRIEDRICH, Joachim	2010	<i>Interneteko krokodiloaren kasua</i>	Markuleta, Gerardo	Bilbo: Giltza	HGL
<i>4 ½ Freunde und die wachsamen Gartenzwerge</i>	FRIEDRICH, Joachim	2010	<i>Ipotx zelatariaren kasua</i>	Arrieta, Yolanda	Bilbo: Giltza	HGL
	FRIEDRICH, Joachim	2011	<i>Irakasleen epidemia misterioetsuaren kasua</i>	Arrieta, Yolanda	Bilbo: Giltza	HGL
	FRIEDRICH, Joachim	2011	<i>Irakasle desagertuaren kasua</i>	Markuleta, Gerardo	Bilbo: Giltza	HGL

<i>4 1/2 Freunde und der Schrei aus dem Lehrerzimmer</i>	FRIEDRICH, Joachim	2011	<i>Irakasle-gelako oihuaren kasua</i>	Markuleta, Gerardo	Bilbo: Giltza	HGL
<i>4 1/2 Freunde und das Geheimnis der siebten Gurke</i>	FRIEDRICH, Joachim	2012	<i>Pepinoen misterioaren kasua</i>	Franco, Jose Luis	Bilbo: Giltza	HGL
	FRIEDRICH, Joachim	2013	<i>Agerian utzitako ikastetxe-zuzendariaren kasua</i>	Gabiria, Julen	Bilbo: Giltza	HGL
	FRIEDRICH, Joachim	2013	<i>Diamanteen lapurretaren kasua</i>	Elustondo, Miel A.	Bilbo: Giltza	HGL
<i>Homo Faber</i>	FRISCH, Max	2001	<i>Homo faber</i>	Arrieta, Joxe Austin	Donostia: Elkar	Eleberria
<i>Herr der Diebe</i>	FUNKE, Cornelia	2004	<i>Lapurren burua</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	HGL
<i>Das Piratenschweinen</i>	FUNKE, Cornelia	2007	<i>Txerrikume pirata</i>	Garikano, Antton	Donostia: Elkar	HGL
<i>Tintenherz</i>	FUNKE, Cornelia	2009	<i>Tinta-bihotz</i>	Zubillaga, Naroa	Donostia: Elkar	HGL
<i>Reckless – Steinernes Fleisch</i>	FUNKE, Cornelia	2010	<i>Reckless – Harrizko haragia</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Elkar	HGL
	GERLICH, Andrea	2009	<i>Katalingorri marigorringoa</i>		Donostia: Ttarttalo	HGL
	GERLICH, Andrea	2009	<i>Lea arkumea</i>		Donostia: Ttarttalo	HGL
	GERLICH, Andrea	2010	<i>Arroxali beldarra</i>		Donostia: Ttarttalo	HGL

	GERLICH, Andrea	2011	<i>Betti hartza</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Ttarttalo	HGL
<i>Gut gegen Nordwind</i>	GLATTAUER, Daniel	2011	<i>Ipar haizearen kontra</i>	Elorrieta, Irati	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	Eleberria
<i>Alle sieben Wellen</i>	GLATTAUER, Daniel	2013	<i>Zazpi olatuz behin</i>	Elorrieta, Irati	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	Eleberria
<i>Monster unter Willis Bett</i>	GLITZ, Angelika	2005	<i>Munstro bat ohe azpian</i>	Ormazabal, Joxantonio	Donostia: Ttarttalo	HGL
<i>Faust: der Tragödie</i>	GOETHE, Johann Wolfgang von	1986	<i>Faust</i>	Onaindia, Jakoba		Antzerki a
<i>Die Leiden des jungen Werthers</i>	GOETHE, Johann Wolfgang von	1987	<i>Werther</i>	Lobera Revilla, Gotzon	Bilbo: Kriselu	Eleberria
<i>Die Wahlverwandtschaften</i>	GOETHE, Johann Wolfgang von	1992	<i>Hautapen-ahaidetasunak</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Euba: Ibaizabal	Eleberria
<i>Die Leiden des jungen Werthers</i>	GOETHE, Johann Wolfgang von	2013	<i>Werther gaztearen arrangurak</i>	Múgica, Matías	Iruñea: Igela	Eleberria
<i>Die Leiden des jungen Werthers</i>	GOETHE, Johann Wolfgang von	2000	<i>Werther</i>	Lobera Revilla, Gotzon	Donostia: Hiria	Eleberria
<i>Ferien bei Onkel Nepomuk</i>	GOTTANKA, Hans	1982	<i>Oporrak osaba Nepomuken etxean</i>		Irbis	HGL
<i>Katz und Maus</i>	GRASS, Günter	1994	<i>Katua eta sagua</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Euba: Ibaizabal	Eleberria



<i>Das Treffen in Telgte</i>	GRASS, Günter	2002	<i>Batzarra Telgten</i>	Eguzkitza, Andolin	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	Eleberria
<i>Wie Schmeckt der Mond?</i>	GREJNIEC, Michael	1999	<i>Nola dastatu ilargia?</i>	Izagirre, Koldo	Pontevedra: Kalandraka	HGL
	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1923	<i>Grimm anayak. Ipuñak</i>	Altuna, Joseba	Bilbo: Emeterio Verdes Achirica	HGL
<i>Von dem Fischer und seiner Frau</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1984	<i>Arrantzalea eta bere Emaztea</i>	Iñurrieta, Iñaki; Urmeneta, María Jesús	Madril: Anaya	HGL
<i>Hänsel und Gretel</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1984	<i>Hansel eta Gretel</i>		Madril: Anaya	HGL
	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1984	<i>Txori Harrigarria</i>		Madril: Anaya	HGL
<i>Der Goldene Vogel</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1984	<i>Urrezko antzara</i>	Ormazabal, Joxantonio	Madril: Anaya	HGL
<i>Die Gänsemagd</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1985	<i>Antzaren neskatoa</i>	Alkorta, Itziar	Madril: Anaya	HGL
<i>Die Bienenkönigin</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1985	<i>Erleen erregina</i>	Alkorta, Itziar	Madril: Anaya	HGL
<i>Die drei Sprachen</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1985	<i>Hiru lengoaiak</i>	Alkorta, Itziar	Madril: Anaya	HGL

<i>Die weiße Schlange</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1988	<i>Suge zuria</i>	Ormazabal, Joxantonio	Donostia: Elkar	HGL
	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	1990	<i>Grimm anaien ipuinak</i>	Sarasola, Juan Mari	Bilbo: Mensajero	HGL
<i>Schneewittchen</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	2000	<i>Edurne Zuri eta 7 ipotxak</i>	Kintana, Xabier	Bilbo: Izar	HGL
<i>Die Bienenkönigin</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	2000	<i>Erleen erregina</i>	Murua, Mitxel	Donostia: Ttarttalo	HGL
	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	2000	<i>Grimm Anaien Ipuinak</i>	Gómez Zubia, Genaro	Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	2001	<i>Grimm anaien berrogeita hamar ipuin</i>	Larrakoetxe a, Ipolito	Derio: Labayru Ikastegia	HGL
<i>Schneewittchen</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	2011	<i>Edurnezuri</i>	Sarasola, José Antonio	Amorebieta- Etxano (Bizkaia): Ibaizabal	HGL
<i>Schneewittchen</i>	GRIMM, Jacob; GRIMM, Wilhelm	2012	<i>Elur-xuri</i>	Giltzu, Luixa	Bilbo: Ikasmina	HGL
<i>Meine Tiere</i>	GRUBER, Denitza	2010	<i>Animaliak</i>		Donostia: Ttarttalo	HGL
<i>Mein erster Puzzle-Zug</i>	GRUBER, Denitza	2010	<i>Trena</i>		Donostia: Ttarttalo	HGL
	GRÜN, Anselm	2012	<i>Perlas de sabiduria: los textos más</i>	Lozano- Gotor	Bilbo: Mensajero	Saiakera

			<i>bellos de Anselm Grün</i>	Perona, José Manuel		
<i>Warum die Käuze große Augen machen</i>	GUGGENMOS, Josef	1982	<i>Zergatik zabaltzen dituzte begiak</i>		Irbis	HGL
<i>Medaille für den besten Vater der Welt</i>	HAISCH, Ulrike	2011	<i>Munduko aitarik onenarentzat: zuretzat domina, aparta zarelako!</i>	Alberdi, Nerea	Madril: Bruño	HGL
<i>Medaille für den besten Großvater der Welt</i>	HAISCH, Ulrike	2011	<i>Munduko aitonarik onenarentzat: zuretzat domina, aparta zarelako!</i>	Alberdi, Nerea	Madril: Bruño	HGL
<i>Medaille für die beste Mutter der Welt</i>	HAISCH, Ulrike	2011	<i>Munduko amarik onenarentzat: zuretzat domina, aparta zarelako!</i>	Astigarraga, Itxaso	Madril: Bruño	HGL
<i>Medaille für die beste Oma der Welt</i>	HAISCH, Ulrike	2011	<i>Munduko amonarik onenarentzat: zuretzat domina, aparta zarelako!</i>	Astigarraga, Itxaso	Madril: Bruño	HGL
<i>Wo kommst du her?</i>	HÄRDIN, Sonja	1992	<i>Nondiz zatoz?</i>	Marín, Isabel	Tafalla: Txalaparta	Erreferentzia-materiala
<i>Oma: Die Geschichte von Kalle, der seine Eltern verliert und</i>	HÄRTLING, Peter	1983	<i>Amona</i>	Urbistondo, David	Donostia: Elkar	HGL

<i>von seiner Grossmutter aufgenommen wird</i>						
<i>Das war der Girbel</i>	HÄRTLING, Peter	1983	<i>Txirbel</i>	Gartzia, Xabier	Donostia: Elkar	HGL
<i>Ben liebt Anna</i>	HÄRTLING, Peter	1990	<i>Benek Anna maite du</i>	Urbistondo, David	Donostia: Elkar	HGL
<i>Krücke</i>	HÄRTLING, Peter	1992	<i>Makulu</i>	Legarreta, Juan	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Theo Hautb AB</i>	HÄRTLING, Peter	1992	<i>Theok alde egiten du</i>	Legarreta, Juan	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL
<i>Lena auf dem Dach</i>	HÄRTLING, Peter	1994	<i>Lena teilatuan</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	HGL
<i>Jette</i>	HÄRTLING, Peter	1996	<i>Jette</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Donostia: Elkar	HGL
	HASLER, Eveline	1988	<i>Ziriko txerritxo</i>		Arrigorriaga: Ediciones SM	HGL
<i>Gute Nacht Zückerpüppche n</i>	HASSENMÜLLE R, Heidi	2002	<i>Gabon, panpinatxo</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	HGL
<i>Abner, der Jude, der nichts gesehen hat</i>	HAUFF, Wilhelm	1998	<i>Abner judua eta Gizon-Tximinoa</i>	Peláez Arregi, Feliciano	Legutio (Araba): Saure	Eleberria
<i>Phänomenolog ie des Geistes</i>	HEGEL, Georg Wilhelm Friedrich	2005	<i>Gogoaren fenomenologia I</i>	Insausti, Xabier;	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera

				Uribarri, Ibon		
<i>Phänomenologie des Geistes</i>	HEGEL, Georg Wilhelm Friedrich	2005	<i>Gogoaren fenomenologia II</i>	Insausti, Xabier; Uribarri, Ibon	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
<i>Der Ursprung des Kunstwerkes</i>	HEIDEGGER, Martin	2004	<i>Artelanaren jatorria eta beste</i>	Zabaleta, Pello	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
	HEINE, Heinrich	1927	<i>Heine'ren olerkiak</i>	Arregi, Joseba	Bilbo: Rementeria	Poesia
<i>Freunde</i>	HEINE, Helme	1982	<i>Hiru lagunak</i>	Kalekumea k	Madril: Altea	HGL
<i>Na Warte sagte Schwarte</i>	HEINE, Helme	1982	<i>Txerritxoaren ezkontza</i>	Kalekumea k	Madril: Altea	HGL
<i>Das Naturbild der heutigen Physik</i>	HEISENBERG, Werner	1997	<i>Naturaren irudia gaur egungo fisikan</i>	Etxebarria, Jose Ramon	Donostia: Gaiak	Saiakera
<i>Abhandlung über den Ursprung der Sprache</i>	HERDER, Johann Gottfried	1995	<i>Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua</i>	Garikano, Antton	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
<i>Der Steppenwolf</i>	HESSE, Hermann	1986	<i>Estepako Otsoa</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	Eleberria
<i>Peter Camenzind</i>	HESSE, Herman	1992	<i>Peter Camenzind</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Euba: Ibaizabal	Eleberria
<i>Siddhartha</i>	HESSE, Herman	2014	<i>Siddhartha</i>	Lindemann, David; Trobiño, Irati	Donostia: Erein; Iruñea: Igela	Eleberria
<i>Bitte nicht spucken</i>	HETMANN, Frederik	1983	<i>Futboleko botak</i>	Juaristi, Aitor	Donostia: Elkar	HGL

<i>Der Sandmann</i>	HOFFMANN, Ernst Theodor Amadeus	1992	<i>Hareetako gizona</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Erein	Eleberria
	HOFFMANN, Ernst Theodor Amadeus	1992	<i>Ipuin fantastikoak</i>	Garikano, Antton	Euba: Ibaizabal	Eleberria
<i>Struwelpeter</i>	HOFFMANN, Heinrich	2008	<i>Peru Tximaluze</i>	Ziemkiewicz, Jurek	Zeberio: Zeberiko Udala	HGL
<i>Wenn ich mir etwas wünschen Könnte</i>	HOHLER, Franz	2007	<i>Nahi dudana eskatzerik banu</i>	Casas, Unai	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	HGL
<i>Hyperion oder Der Eremit in Griechenland</i>	HÖLDERLIN, Friedrich	2001	<i>Hyperion</i>	Gil Bera, Eduardo	Donostia: Erein	Poesia
	HÖLDERLIN, Friedrich	2001	<i>Poemak</i>	Gil Bera, Eduardo	Donostia: Erein	Poesia
	HÖLDERLIN, Friedrich	2012	<i>Olerki guztiak</i>	Arostegi, Luis	Markina: El Carmen = Karmel	Poesia
	HUMBOLDT, Wilhelm von	2001	<i>Idazki hautatuak</i>	Zabaleta, Pello	Bilbo: Klasikoak SA	Saiakera
<i>Wenn Anna Angst hat...</i>	JANISCH, Heinz	2003	<i>Ane beldur denean...</i>	Umerez, Nekane	Euba: Ibaizabal	HGL
<i>Hannes Strohkopp und der unsichtbare Indianer</i>	JANOSCH	1987	<i>Jon Artaburu eta indio ikusezina</i>	Zabaleta, Pello	Arrigorriaga: Ediciones SM	HGL
<i>Lari Fari Mogelzahn</i>	JANOSCH	1995	<i>Lari Fari hortzandi</i>	Mendiguren Bereziartu, Xabier	Bilbo: Desclée de Brouwer	HGL

<i>Mutter, sag, wer macht die Kinder?</i>	JANOSCH	2010	<i>Esan, ama, nork egiten ditu umeak?</i>	Jaka, Aiora	Donostia: Elkar	HGL
<i>Oh, wie schön ist Panama</i>	JANOSCH	2010	<i>Zein polita den Panama!</i>	Irazustabarrena, Ainhoa	Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
<i>Post für den Tiger</i>	JANOSCH	2011	<i>Posta tigreakrentzat</i>	Irazustabarrena, Ainhoa	Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
<i>Komm, wir finden einen Schatz</i>	JANOSCH	2013	<i>Altxor bat aurkituko dugu</i>	Irazustabarrena, Ainhoa	Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
<i>Ich mach dich gesund, sagte der Bär</i>	JANOSCH	2015	<i>Neuk sendatuko zaitut, Tigre</i>	Irazustabarrena, Ainhoa	Arre (Nafarroa): Pamiela	HGL
<i>Der weisse Apache</i>	JEIER, Thomas	1995	<i>Apatxe zuria: Santiago Mackinn-en historia</i>	Zabaleta, Pello	Donostia: Elkar	HGL
<i>In der Stadt</i>	JELENKOVICH, Barbara	2010	<i>Hirian</i>	Elsenaar Argaña, Ihintza	Donostia: Ttarttalo	HGL
<i>Am Meer</i>	JELENKOVICH, Barbara	2010	<i>Itsasoan</i>	Elsenaar Argaña, Ihintza	Donostia: Ttarttalo	HGL
<i>Bist du schon wach?</i>	JOHANSEN, Hanna	2007	<i>Esna al zaude?</i>	Casas, Unai	Irun (Gipuzkoa): Alberdania	HGL
